

2

SAKONTZEN

2016ko Martxoa

Haustura demokratikoaren aldeko borrokaren ikasgaiak





www.lratzar.eus/korapiloo

Franco hilzenetik 40 urte pasa direlarik, kolokan dago "Trantsizio eredugarriaren" mitoa. Alta, orduko Korapilo berberak askatu gabe jarraitzen dute. Egun haustura demokratikoaren aldeko apustua egin arren, ikasi dugu alperrik dela espainiar demokratizazioaren zain gelditzea. Bidea Estatuarekiko haustura izan behar da.

Korapiloo egitasmoa Erreforma politikoaren bilana da: testigantzak, garaiko dokumentuak eta gertakari garrantzitsuenen bilduma, belaraldi gazteei transmisioa egiteko, baina batez ere, ikuspegi eraldatzaile eta independentista indartzeko bultzada da.



www.lratzar.eus

Iratzar Fundazioa

Zuatzu Enpresa parkea

Ulia eraikina 1,1.

20018 Donostia (Euskal Herria)

www.lratzar.eus

fundazioa@lratzar.net

Lege Gordailua – Dep. Legal : SS 197-2015



Haustura

demokratikoaren aldeko

borrokaren ikasgaiak

Aurkibidea

<i>Sarrera</i>	4
<i>Franco hil ondoko erreforma politikoaren inguruko hausnarketaren garrantziaz</i>	5
<i>Espainiar erreforma politikoaz zortzi ideia</i>	7
<i>Ondorio eta ikasgaiak</i>	30



Sarrera

Ezker abertzaleak erronka handiei egin behar die aurre lan eta borrokari esker irekitako aro berri honetan. Biziraupen eta erresistentzia joerak nagusitu dira hainbat urtetan eta argi dago etorkizunean Euskal Herriaren independentzia aro berriaren zerumuga bilakatu behar dugula. Kalitatezko jauziak eskatzen dizkigu honek eta trebakuntzaren hobekuntza dugu horietako bat.

Iratzar Fundazioak euskal jendartearen pentsamendu kritikoa eta subjektibatzea bultzatu nahi ditu, subjektu den herriaren parte izan nahi baitugu. Lan hori etxean hasi behar da egiten, jakina, eta beraz, ezker abertzaleko kideen gaitasun analitiko-kritikoa eta adimen kolektiboa indartu nahi ditugu, hausnarketarako tresnak sortuz.

“Sakontzen” honek trebakuntza sakontzeko tresna izan nahi du, gure herriaren eta ezker abertzalearen ibilbide historikoan hain garrantzitsua izan zen erreforma politikoaren garaia gogora ekarriz.

Gure asmoa marko interpretatibo kritikoa eskaintzea izan da, zehaztasunez jositako irakurketa itxirik eskaintzea baino. Izan ere, Marxek idatzi zuena oroitzuz: gure erronka ez da mundua interpretatzea, eraldatzea baizik.

Idazki honen helburua ez da, edonola ere, Franco hil ondotik gertatutakoaren errelato zabal eta sakon bat egitea. Badaude euskarri onuragarriak maila horietan, eta asko aurkitzen ahal dituzue honetarako prestatu dugun webgune berezian: www.iratzar.eus/korapiloa

Hau gogoeta politiko kritikoa da, esperientzien azterketa, begirada zorrotza eta transmisiorako tresna izan nahi duen interpretaziorako gakoen bilduma.

Horregatik, azpimarratu nahi izan ditugun ideiak aurkezten dizkizuegu, eztabaida bultzatzeko asmoz. Hau ez da erreformaz esan daitekeen guzia, ezta askoz ere guttiago ere, baina espero dugu eztabaidarako abiapuntu egokia izatea.

Bestalde, 2016ko idazkia da. Azterketak erakusten digu garai hartako euskal militante haustura zaleek ikuspegi fina izan zutela erreformari ezetz esatean eta erresistentziari eutsiz egitasmo alternatiboaren alde, baina urteen poderioz orduan jakin zitekeena baino askoz ere gehiago dakigu, egoeraren joan eta etorriengatik, urteotan egindako azterketei esker eta mahaiaren azpiko jokoak, nazioarteko egoeraren eboluzioa eta prozesuaren ondorioak ezagutzen joan direlako.

Honenbestez, garai hartako kritika haustura zalearen onena gureganatuz eta birziklatuz, gaur egungo begirada lehenetsi nahi izan dugu, gaurko erronkei erantzun nahi dien gogoetarako hainbat ideia mahai gainean jarritz. Aurreratu bezala, gure helburua eztabaida bultzatzea da, trebakuntza politiko eta ideologikoa elkarlanean sustatzeko.

Gida gisa hartu behar da testua, aipatzen diren gogoetak aztertu, kritikatu, zorrotzu, aberastu, partekatu, berritu, kolokan jarri... Eztabaida bizirik dagoen eta egon nahi duen erakunde eraldatzaile ororen arnas hartzea da. Arnas har dezagun bada, gure esperientzia aberatsak eta gure gaitasun kritikoa baliatuz eta indartuz.

Franco hil ondotiko erreforma politikoaren inguruko hausnarketaren garrantziak.

Baditugu arrazoi asko frankismoaren erreforma politikoari erreparatzeko:

- Erreforma politikoa 1978ko Konstituzioan oinarri eta adierazpen dituen espainiar erregimenaren fundazio unea da. Gaur egungo egoera eta estatuan korapilatutako krisiak ulertzeko ezinbesteko erreferentzia.
- Erreformaren azterketak nabarmentzen ditu 1978ko erregimena eta frankismoaren arteko lotura eta jarraipenak, finean, prozesuaren gidari nagusiek aitortu zutenez, legetik legera egin zela trantsizioa.
- Neoliberalismoa eta bere desdemokratizazio agenda hobeki ulertzeko parada eskaintzen digu, jarduera horren eboluzioaren ikuspegi historikoa eskainiz, finean erreforma ardatz horien arabera ulertu beharra baitago.
- Espainiar nazionalismoaren eboluzioari begirada kritikoa emateko aukera bat da, noiz eta beren burua berritzat jo nahi duten hainbat eragilek beren menpe segitzen dutelarik.
- Ezker independentista eta oro har sektore haustura zale-demokraten ibileraren azterketa kritiko-autokritiko aberasgarria egiteko aukera ematen digu, asmakizun eta akats nagusiak identifikatuz.
- Gure historia guk kontatu behar dugu. Euskal jendarteari, belaunaldi berriei, baita gure buruari ere. Guk ez badugu egiten beste batzuek egiten jarraituko dute. Erreformaren urteak erabakigarriak izan ziren ezker abertzalearen ibilbidean eta erreferentzia hauek landu behar ditugu, ez joera nostalgikoan, jakina, gure jarduera indartzeko eta etorkizunari begira baizik.
- Nabarmena baita Trantsizio Eredugarriaren Mitoa demokratizazio saioak oztopatzeko narratiba dela, estatuan ez ezik mundu zabalean ere erabili dena. Ziur asko, urteurrenak baliatuko dituzte berriz ere mitologia politiko hori eztabaidaren erdian kokatzeko, oraingoan ere gainezkapen demokratikoa galarazteko.
- Erreforma euskal ikuspegitik aztertzea eta gogoratzea deskonexio saioak baitira. Azkenengo urteotan eman ditugun urratsak eta bereziki, gure independentziarako aldebakarreko estrategia berresteko, espainiar agendarekiko haustura bultzatuz.





- Euskal Herriak erreformari egin zion erresistentzia emankor eta ausarta estatuarekiko bide-banaketa (bifurkazioa) sakondu zuelako, bultzatu nahi dugun autoeraketa jarduerarako oinarrizko baldintzak sortuz. Erreformen egindako lanari esker egiten ahal diogu aurre aro berriei.
- Milaka militante beteranoren bizitza eta borroka ondarea berreskuratu eta balorean jartzeko, hura oroitu, birbegiratu eta transmisio jardueretan parte hartuz, lagun horiek ekarpen berriak egiteko parada izan dezaketelako.



Espainiar erreforma politikoaz zortzi ideia

1. Alemania nazi eta Italia faxistaren laguntzaz abiatu zen diktadura frankista Estatu Batuak eta Mendebaldeko beste eragile nagusiei esker luzatu zen Francoren heriotzaraino, uneoro espainiar elite nagusien babesa izan zuelarik.

Hitlerren Alemania eta Mussoliniren Italiari esker lortu zuen garaipena Espainiar Bigarren Errepublikaren kontrako estatu kolpeak. Haien eskutik eta hainbat potentzia “demokratiko” pasibo izan zirelako iritsi zen Franco boterera, baina bigarren munduko gerraren ibilerak hainbat aldaketa ekarri zituen eta lerrokadurak aldatu behar izan zituen espainiar erregimen faxistak.

Gerla bukatuta, Mendebaldeko eragile nagusien konplizitateaz erdietsi zuen bizirautea diktadurak. Komunismoaren kontrako gerla hotzaren aitzakiaz, kapitalismoaren beste aldagarria zen espainiar diktadura babestu zuten, bere bideragarritasun ekonomikoa ziurtatuz eta kritika formalen azpitik Francori aterpea eraikiz. Horrela, beste mugimendu faxistendako ezin arnastuzko airean bizirik mantendu zen frankismoa.

Erreferentzia nazi-faxistak makilatu behar izan zituen erregimenak, lerrokatze berrian uztartzeko. Ekonomikoki, politikoki eta sozialki isolamendua bideraezina zen eta espainiar eliteek kapitalismoaren sareekiko mihiztapena lortu nahi zuten, hori bai, askatasun demokratikorik gabe eta langileria nahiz herriari aukera politikorik eskaini gabe, zapalkuntza ekonomikoa, ezberdintasunak eta alienazio guztiak aldaketa handirik gabe mantenduz. Elite hauen ametsa espainiar estatuaren industrializazio-modernizazio kontrolatua zen, ideia berririk eta gatazka sozialik gabeko kapitalismoa, hots.

Denboraren poderioz, argi gelditu zen konplizitate horiek zerumuga murrizten zutela espainiar estatuarendako: Europako beste estatuiekiko homologazioa. Eta adostasun handia zegoen egokipen hori prozesu gradual eta kontrolatu gisa irudikatzean. Espainiar elite nagusien zerumuga horixe zen, batetik, isolamendutik ateratzeko eta, bestetik, argi baitzuten laguntza behar zutela estatuko herri eta herritarrak menpe gordetzeko. Oso bizirik zuten 1931-39 tartearen, baita XIX. mendeko gerrak eta egonkortasun eza ere.

Beren beldur nagusia gainezkapen demokratikoa zen, hau da, herriak politika eta finean jendartearen kontrola berenganatzea eta, beraz, hau galaraztea bilakatu zen beren lehentasuna. Erregimenaren forma bigarren mailako afera bilaka zitekeen gainezkapenaren bazterketaren aurrean. Finean, ez zuten beste alternatibarik.

Gauzak horrela, espainiar eliteek bazekiten Europa eta oro har kapitalismoaren muinarekiko uztarketa subordinazio baldintzetan izanen zela bai ala bai. Esan dezakegu, beraz, diktaduraren luzapen adostuaren ordean Espainia bera saldu zutela, kapitala eta inperialismoaren eskuetan utziz.





Ituna onuragarria zen Mendebaldeko Potentziendako eta kapitalistek ez zuten diktadura estutu. Errepublika eta antifrankistekiko elkertasun formala keinuetarako utziz, diktaduraren normalizazioa babestu zuten. Etorkizuneko egokipena erreferente gisa harturik, gainezkapenak galarazteko egitasmoari ekin zieten elkarrekin. Esanguratsuki, frankismoaren nazioarteko gaitzespenaren irudia azken uneraino eman nahi izan zuten mahai azpitik erregimenaren biziraupena bermatu zuten horiek beraiek!

Adostasuna zegoen, honenbestez, frankistak eta nazioarteko eragile nagusien artean: espainiar erregimenaren aldaketa neurtu eta orekatua egin behar zen, gainezkapenik gabe, mendebaldeko koordenadetan, mihiztaketa kapitalista bermatuz, langileria eta herri sektoreen eragina mugatuta.

Diktaduraren biziraupena eta luzapena ulertzeko funtsezkoa izan zen konplizitate sistema hau, gerora, goitik behera ezarritako egokipenaren berma bilakatu zena.

Franco hil ondotiko agertokia aztertzeke, beraz, gogoan izan behar dugu nola lortu zuen 40 urte luzez irautea: apadrinatutako diktadura izan zen! Azkenean, luzapen historiko horren funtsean aurkitzen dugu diktaduraren ondotiko erregimenaren sorreraren gakoetako bat.

Esan beharra dago etsipenaz egokitu zirela indar antifrankista historikoak agertoki honetara. Laster likidatuko ziren erresistentzia saioak (makiak) eta, matxinada nahiz oposizio armatuaren aukerak baztertuta, erregimenaren zati batzuk edo besteekiko akordioaren bidea hasi ziren miatzen.

Jende askok uste izan zuen Hitler eta Mussoliniren zorte bera izanen zuela Francok eta beraz, Diktadurak ez zuela 1945ko gerla bukaeraren muga gaingituko, argi baitzegoen espainiar estatua ez zegoela beste konfrontazio militar bati aurre egiteko baldintzetan, baina aliatuek ez zuten inolako neurririk hartu Franco botererik kentzeko eta erregimena beste 30 urtez luzatu zen, haien laguntzari esker.

2. Franco hil aurretik hasi ziren erregimena eta bere aliatuak Franco hil ondotiko erregimena eta bitarteko trantsizioa prestatzen eta honek abantaila estrategikoa eman zien.

Denboraz prestatu zen Franco hil ondotiko agertokia. Kontraesan eta ezberdintasunak zeuden frankisten artean, baita antifrankisten artean ere, eta dakigunez, alperrekoa da etorkizuna aurretik idatzi nahi izatea. Beraz, prestatu zela diogunean, ez dugu gidoi itxi eta mekaniko baten irudirik erabili nahi, baina, errelato ofizialak ukatzen badu ere, postfrankismoaren erregimenaren gako nagusiak eta prozesuaren ezaugarri nabarmenenak nahiz marra gorriak aurretik lotu ziren eta erdua ezartzeko estrategia prestatu eta gauzatu zen, halaber.

Prestakuntza honen xedea argia zen: hausturarik gabeko normalizazio-homologazio prozesua. Elite frankistek argi zuten bilatutako agertokia eta urte asko eman zituzten kontrolpeko aldaketa prestatzeko.

Prestakuntzaren bost gako azpimarratu nahi ditugu. Lehen, nazioarteko konplizitate eta babes sarea. Frankismoaren luzapena ahalbideratu zuen sare bera erabili zen kontrolatutako agertokia bideratzeko, espainiar estatuak Mendebaldeko uztarketa sakondu eta bermatzeko. Erreforma ulertzeko derrigorrez erreparatu behar zaio nazioarteko konplizitate horri. Trantsizio prozesua babestu zuen, zilegitasuna eman zion eta jarrera proaktiboa hartu zuen erreforma ereduaren kritikoen kontra.

Bigarren, erregimenaren egokipen prozesua lideratu ahal izateko eta jarraipen moduan egin ahal izateko, eraldaketa prozesuaren baldintza kontrolatuak bermatzeko, bai oro har nahiz prozesua zuzendu beharko lukeen belaunaldiaren prestakuntza. Oroi dezagun noiz eta 1969. urtean izendatu zuela Francok Juan Carlos Borbon bere ordezkio gisa, hain zuzen atado y bien atado esaldia erabili zuelarik. Nabarmena zen ordurako errestituzio borbonikoa zela erregimenaren zerumuga.

Frankismoak ez zuen bere buruaz beste egin nahi; horregatik prestatu zuen bere kontrolpeko eraldaketa gauzatzeko bidea. Arazoak izan zituen erregimenak erronka honetan, jakina, inertzia batzuk indartsuak zirelako, baina 1975rako argi zegoen ez zuela berdin jarraitzerik. Lidergo argiak eraiki zituzten eta erreferentzia horiek frankismoaren sostengu gehienek leialtasuna bermatu zuen. Finean, bazekiten erreformaren egitasmoa hegemonikoa bilakatu behar zutela etxean, maila guzietan ezarri ahal izateko.

Hirugarrena, oposizioaren konplizitatea lortzeko estrategiak, indar posiziotik bideratu zirenak, argi utziz ez zela bestelako biderik onartuko eta, bidenabar, amua eskainiz. Franco hil aurretik hasi ziren harremanak, baita presioak ere. Esanguratsuki, mezu haustura zaleak zabaltzen zituzten eragile asko diktaduraren ordezkariekin hizketan zeuden. Mahai azpiko harreman hauek konplizitate bilakatu ziren denboraz, argi gelditu zenean frankismoak indar aski izanzen zuela beren interesen arabera agertokiak ezartzeko. Eragile hauek ez zuten prozesu hauen berririk zabaldu beren oinarrien artean.

Laugarrena, egitasmo alternatiboen neutralizazioa. Nabarmena izan zen oposizio borrokariaren kontrako errepresioa, alternatibarik eraikitzeke aukera blokeatzeko. Hau zen frankisten benetako beldurra. Ederki zekiten gainezkapen aukera bakarra mugimendu hauen aldetik etorriko zela. Horregatik, gero ikusiko dugunez, indar oroz oldartu zuen esparru borrokariaren aurka. Estatuak bere hertsadura aparatua indartu zuen diktaduraren azken urteetan. Mezu argi bidali nahi zuten, eta odolaz bideratu zuten.

Bosgarrena, eredu kapitalista-kontsumistaren sustapen ideologiko-kulturala. Garrantzi handia eman zaio erregimenaren nazional-katolizismoari, baita oro





har esparru faxistan eta inguruan kokatu zitezkeen ikur eta eredu autoritarioei, baina honekin batera frankismoak, autarkia eta erretorika antiliberala alde batera utzita, ahalegin handiak egin zituen zapalkuntza kapitalista normalizatzeko, oinarri soziala zabalduz.

Bide honetan modernizazioa, kontsumoa, etxebizitzaren jabegoa eta oro har, garapenaren mitifikazioa erreferentzia errotuak bilakatu ziren. Finean, milioika lagunendako diktadura eta garapen sozio-ekonomikoa batera agertzen ziren. Oroitu behar dugu frankismoak ezkerre eta nazio askapen egitasmoen satanizazioa eta kriminalizazioa garatu zituela.

Diktadura autoritario gisa agortu zitekeen erregimena, beraz, baina eredu kapitalista oso errotuta utziko zuen, kontsumoa eta oro har klase nagusien baloreak erabat nagusituta.

Gauzak horrela, nabarmena da prozesu kontrolatu baten aldekoek oso aurreratuta zutela lana Franco hil baino lehen. Honek ahalbideratu zuen oposizioaren aurreko indar posizioa hartu izana. Estatu bilakatu zen egonkortasunaren berma, aldaketaren aukerak mugatuz, eta argi utziz erregimenaren ordezkapena jarraipen gisa eginen zela, hausturaren aukera baztertuta.

Bazegoen, beraz, egitasmo generiko bat, zehaztu beharrekoa, tentsioak ere bazituena, baina nazioarteko agertoki nagusietan uztartzen zena eta nazioarteko eragile nagusien onespina eta babes zuen, sozialdemokrazia barne. Egitasmo honek bazuen espainiar elite nagusien atxikimena eta finean, estatu burua eta estatuarena berarena.

Oposizio historikoa oso ahul zegoen frankismoak bere aliatuekin batera ezarritako norabide eta helburuen aurrean. Alternatibarik gabe gelditu zen diktaduraren kontrako borroka irekia baztertuta, beren nazioarteko erreferenteak nor eta frankisten laguntzaileak zirelarik. Izan ere, argi gelditu zen oso goiz nazioarteko eragile nagusiek, espainiar estatuko elite ekonomiko eta bestelakoen moduan, ez zutela hausturarik nahi, espainiar estatuaren modernizazio eta homologazio prozesuaren jarraipena baizik.

Oposizioaren mezu ozen baina hutsen aurrean frankismoak eta bere egokipenean uztartutako eragile aliatu guziek estrategia eta posizio indartsua osatzen zuten, estrategia hori ezartzeko bitartekoak eta determinazioa zutelarik. Oposizioak, berriz, ez zuen nazioarteko sarerik eta ez zuen B planik, jendearen aurrean besterik esaten bazuten ere.

Errelato ofizialak sinestarazi nahi digu erreforma ustekabeko demokratizazio prozesua izan zela, baina frankismoa bera izan zen, bere aliatuekin batera, ondutiko agertokiaren diseinu nagusia aurreratu zuena. Prestakuntza sistematikoa izan zen, epe luzekoa, marra gorri argien araberrakoa, eta aurreratutako lanak arrakastaren atea ireki zien.

3. Diktaduraren kezka nagusia herri mugimendu eta eragile-subjektu berriak izan ziren, batez ere Euskal Herrian piztutako matxinada demokratikoa.

Luzea, oso luzea izan zen Francoren Diktadura. Luzea batez ere zapalkuntza eta errepresioa jasan zituztenendako. Eta zaila izan zen, giro hartan, protesta eta borroka antolatzea.

Lehen garaietako erresistentzia antifaxistaren porrotak zapuzketa erraldoia ekarri zuen eta Errepublikaren aldeko indar historikoak krisi sakonean sartu ziren. Izugarriak izan ziren haien kontrako sarraskiak eta nazioarteko egoerak isolatuta utzi zituen, Francok bigarren gerla mundialaren irabazle gehienek babesa lortu baitzuen.

Milaka eta milaka militante komunista, abertzale, demokrata, sozialista edota anarkista ibili ziren borrokan baldintza kaxkarrenetan, baina laster gelditu zen agerian ez zutela erregimena kolokan jartzeko aukerarik, are makurrago aintzat hartuta oposizioaren indar historikoen zuzendaritzek borroka armatuaren aukera baztertu zutela.

Gauzak horrela, belaunaldi oso bat suntsituta gelditu zen eta beste bat etorri zen, jokamolde eta erreferentzia berriekin, borroka berpizteko. Militante historiko zintzo eta ausart asko ahortzi gabe, diktaduraren kontrako mugimendu eta borrokalaria haiek izan ziren benetako oposizioa antolatu eta garatu zutenak. Antolaketa, mezu eta jarduera berriak zabaldu ziren munduan zehar gertatzen ari ziren deskolonizazio eta askapen prozesuei begira (Algeria, Kuba...) baita gerora Europan piztu ziren mugimenduei erreparatuz ere (1968ko maiatza...).

Oposizioa nolabait, gartzetu eta berritu zen. Eta prozesu horretan oso inportanteak izan ziren espainiar estatuan gertatu ziren aldaketak, batez ere industrializazioa, urbanizazioa, eskolatzea eta eraldakuntza sozio-ekonomikoak. Frankismoak langileria antolatu eta borrokalaririk gabeko industrializazioa nahi zuen, baina aldaketek erregimenarekiko atxikimenak astindu zituzten.

Lantegietan, unibertsitateetan, auzoetan, elizaren inguruan eta abar, finean, kalean abiatu ziren mugimendu haiek indar handia hartu zuten eta denboraz, arazo bilakatu ziren erregimenarendako. Protesta zehatzez gain, diktaduraren hegemonia ideologiko eta kulturala erosi arazi ari ziren eta presioa antolatzen ari ziren lana-kapitala ardatzean, enpresariak estatu frankistarekin zuten sinbiosia urratzen. Diktadurak lurperatu nahi zituen bi mamu nagusiak, ezkerria eta herrien aldarrikapenak, berragertzen ari ziren forma berrien bidez, baina aspaldiko mehatxuak oroituz. Langileria eta herri sektore batzuk antolatzen ari ziren eta kalera ateratzen ari ziren, errepresioa eta beldurrari aurre eginez.

Estatuaren erantzunak fase ezberdinak izan zituen. Une batzuetan, ezinegona irensten saiatu zen, baina azkenean errepresioaren areagotzearen bidez egin zion aurre fenomenoari. Izugarria izan zen frankismoaren errepresioa, eta, esanguratsuki, hainbat urtetako normalizazioa baztertuta, lehen urteetako aurpegi itsusiena erakutsi zuen protestak eta desatxikimenak zabaltzen ziren heinean.





Frankismoak izugarrizko lana egin zuen bere burua garbitzeko herritarren aurrean. Sakon eta zabal ibili zen erregimena eraldaketa ekonomikoak arrakasta gisa saltzeko. Bere buruaz lotu nahi izan zuen modernizazioaren ikuspegia, espainiar estatua mendeetako atzerapenetik ateratzen ari zela irudikatuz. Esanguratsuki, etxebizitzaren jabea izan zen eraldaketa hauen ikur eta oinarrietako bat, jabeen nazioaz hitz egiten zutelarik.

Frankismoak bere oinarri soziala landu zuen, eta atxikimen sare erraldoia eraikitzeko gai izan zen. Alternatibaren ezak lagunduta, klase ertain atzerakoa indartzen aritu zen, langileriaren boterea mugatu nahian, langileria bera klase ertaina bilakatzeko zerumugaren menpe lotuta izateko. Geroko propagandak sinestarazi nahi izan digu Franco zela frankista bakarra, baina ez da egia. Diktadurak zale asko izan zituen eta jende askok bat egin zuen erregimenarekin maila askotan, parte hartze aktiboa barne. Koltxoi honek lasaitasuna ematen zion frankismoari eta etorkizunerako zituen planak indartzen zituen.

Erregimena ez zen, bestalde, oposizio historikoaren beldur. Nazioarteko babesari esker, bazekien ez zuela arriskurik ekarriko. Nabarmena zen porrota barneratuta zutela eta etsipenaren esparruan zeudela murgilduta. Horregatik, alarmak piztu ziren mugimendu berriak abiatu eta indartu zirenean. Astintze horrek kezkatu zuen frankismoa eta beste agertoki bat jarri zuen mahai gainean, gainezkapenarena, hau da, nolabaiteko hausturarena, prestatuta zeuden etorkizunerako asmoak kolokan jartzen ahal zituena.

Estatu osoan piztu zen antifrankismoa berria, baina erregimenaren kezka nagusia euskal matxinada izan zen.

Euskal Herrian aldaketa asko gertatu ziren frankismoan, besteak beste bigarren industrializazio olatua, Araba eta Nafarroan eragin berezia izan zuena. Astintze ederra gertatu zen, batetik, euskal kultura, hizkuntza eta nortasunaren inguruan. Euskaltzaletasuna, euskalduntasuna bera eta areago abertzaletasuna diktaduraren kontrako erreferente erakargarriak bilakatu ziren, noiz eta langileriak protagonismo berria eskuratzen zuenean bere antolakuntza eta borrokei esker.

Gertaera historikoa izan zen eraldaketa prozesu hura. Maila ideologiko eta kulturean, frankismoaren baloreak, zilegitasuna eta autoritatea kolokan jarri zen, eta mobilizazioak izugarrizko ikusgarritasuna eta begirunea lortu zituzten kalean. Gainera, iceberg erraldoiaren puntan erronka berri bat agertu zen, ETA erakundearen jardura armatua. Mugimendu berria sortu zen, erreferente zaharren gainetik berriak jartzen zituena. Eta mugimendu hori ez zuten indar historikoek lideratzen. Estatuaren indarkeria desafiatu zuten mugimendu horiek, inunitatearen irudia txikituz.

Mugimendu berria zen, eragile eta jardueren konstelazio konplexua, dinamikoa, nazionalismo burgesa eta ezker espagnolista gaingitu eta beste zerbait sortzeko gai izan zena.

Giro hartan, ezkerreko abertzaletasuna asmatu zuen euskal jendarteak, aurrekari historiko batzuk eguneratuz. Eta lehenbiziko aldiz, subjektu politikoa ez zen eliteen zatiki bat, ezta estatu mailako klase edo bloke sozial bat, euskal populazioa baizik. Mugimendu horrek asmatu egin zuen, besteak beste, honako kontzeptu berri eta berritzaile potente hau: Euskal Herri Langilea.

Euskal matxinada hura ezker abertzale berria baino askoz ere gehiago zen. Gainera, ezkerreko independentismoa ez zen nagusia esparru zabal eta bizi horretan, aniztasun handia baitzegoen. Ikuspegi estatualistak, oraingoz, indar handia zuen, estatu mailako eskalaren eragina nabarmena zelarik, baita abertzaleengan ere.

Frankismoaren azken hamarkadetan eraldakuntza handiak bizi ziren Euskal Herrian eta pizte giro hartan erregimenak ikusi zuen bere arrisku handiena, sumatu baitzuen ez zela erraza izanen mugimendu hura beren erreforma estrategiaren bidez irenstea. Horregatik oso gogorra izan zen esperientzia horren kontrako errepresioa. Errepresio horrek, bestalde, ETAren zilegitasuna indartu zuen eta gatazka bera elikatu zuen, erregimena beste inon baino gordinago agerrarazten.

Gainera, Euskal Herriaren borroka grina hura erreferentea bilakatu zen estatu osoko oposiziorako. Hor bazegoen gainezkapenerako aukera bat eta frankistek ulertu zuten beren eskuetan zegoen guzia erabili behar zutela fenomeno hori indargabetzeko. Franco hil ondotik jada gelditu zen, beraz, markatuta erreformaren gako nagusietako bat: euskal matxinada demokratikoa.

Akats handia litzateke Euskal Herria mugatzea diktaduraren kontrako mugimenduaren indarra, baina denboraren poderioz erregimenak argi izan zuen non zegoen bere erronka nagusia. 1973an inteligentzia lanetan zebilen San Martin koronelak bilan zorrotza jakinarazi zion Francori: “desde el punto de vista técnico, salvo en la región vasco-navarra, a la subversión se la podía contener”.

4. Frankistek inizatiba izan zuten hasieratik eta eliteen nahiz kanpoko aitabitxien laguntzaz, beren interes eta asmoen arabera eredua inposatzeko gai izan ziren. Oposizio historikoak huts egin zuen eta, haustura baztertuz, frankisten eta beren aliatuekiko subordinazio posizioa hartu zuen, gainezkapen demokratikoa galarazteko zilegitasuna oparituz.

Francoren heriotzaren urte hurbilenetan, bai aurretik zein ondotik haustura zen indar antifrankisten aldarrikapena. Juan Carlos Borbon gaitzesten zuten, Francok izendatuta, diktaduraren jarraipena ordezkatzan zuelako. Estatu faxistaren errotiko garbiketa eta kriminalen zigorra eskatzen zituzten, herrien autodeterminazio eskubidearen defentsaz batera. PSOE eta PCEn kasuan, gainera, jendartearen eraldaketa sozialistaz mintzo ziren. Hau da, prozesu konstituziogile ausart eta sakona eskatzen zuten, deseratze neurri argiak barne zituena, diktaduraren arkitektura desegiteko.





Horiguzia baztertuta, beste bat izan zen ezarritako bidea. Hausturaren agendaren orde, erreforma nagusitu zen, hau da, frankista eta nazioarteko aitabitxien arabeko jarraipen eta aldaketen uztarketa berezia. Inposatutako marra gorrien arabeko erregimen berrirako trantsizioa, hots. Oposizio historikoak hausturaren aukera baztertu zuen eta kontrolpeko trantsizioaren eredura hurbiltzen joan zen, jendeari begirako mezua oso bestelakoa bazen ere.

Kapitalismoaren markoaren arabeko prozesua, diktadurak ezarritako estatu forma (monarkia) kolokan jartzen ez zuena, estatuaren garbiketa baztertzeko zuena, estatuaren egituraren jarraipena bermatuz, espainiar nazionalismoaren nagusitasuna, herriei erabakiak hartzeko aukera galaraziz, eliteen arteko itunaren gailentzea, hau izan zen erreformaren mamia.

Diktaduraz mozteko benetako prozesu konstituziogileak herritarren parte hartze aktiboa eta erabakigarria behar zuen, baina hori izan zen hasieratik galarazi nahi izan zutena, gainezkapen aukerak ixteko. Finean, goitik beharako prozesua inposatu zen, gerla zibilarren berpiztea, inboluzioa eta estremismoaren kaosaren "arrikuak" galarazteko.

Aldarrikapen haustura zaleek eta asmo horiek pizten zuten erregimenaren beldurra batetik, eta emaitzaren artean bestetik, alde handia dago, jendartearen manipulazio masiboa eta oposizio historikoaren dekantazio erreformistaren arabera ulertu behar dena.

Frankistek izan zuten inizatiba lehen unetik, arazoak arazo. Egia da kezka eta alarmak piztu zirela diktaduraren azken urteetan, oposizioa, protestak eta desatxikimenak ugaltzen ziren heinean. Errepresioak erregimenaren aurpegi gogorrena erakusten zuen, bereziki Euskal Herrian, baina estatu osoan, finean. Egoera horretan, zaila bilakatzen zen nazioarteko aitabitxien elkartasuna. Gainera, krisi ekonomikoa indarrez agertu zen eta kezka arrazoi berriak jarri zituen mahaia gainean. Langileez gain, eliteak ere kezkatuta zeuden ekonomiaz, diktaduran eta gatazka sozial eta politikoaren testuinguruan nekez egin zitezkeen aldakuntza sakonak beharrezko gisa jotzen zituztelarik. Bistan zegoen espainiar estatuaren normalizazio-homologazioa ezinbestekoa zela, eta premia zegoen lehenbailehen lortzeko, leherketa sozialen aukerak urruntzeko.

Baina elite frankistek, kezkak astinduta ere, estatua, nazioarteko babes sarea eta elite opositoriekiko konplizitate harreman aurreratuak zituzten. Bazekiten, aipatu dugunez, ez zegoela B planik eta, badaezpada, inboluzioaren mehatxua zuten beti prest, armadaren beldurra sortzeko gaitasuna inork ere ahazten ez zuelarik. Horrek koltxoi ederra ematen zien beren erreforma agenda aurrera eramateko, arazoak arazo. Oposizio historikoak aldarrikapenak gorde eta agenda horretara egokitu ziren, posibilismoaren izenean, ereduaren onurak lau haizetara hedatzen zituztelarik.

Moncloako Itunak eta 1978ko Konstituzioa izan ziren, besteak beste, erreformaren izena hartu zuen inposaketa eta klanduzio katearen mugarriak. Itun demokratizatzaile eta aurrerakoi gisa aurkeztu ziren inposatutako agendaren

zehaztapen hauek eta, horrela, oposizio historikoak frankistak zuritu zituen, behar zuten zilegitasuna oparituz. Oro har, diktaduraren zuriketa izan zen. Amnistiarenaz gertatutakoa oso esanguratsua da maila horretan, opositoriek amnistiatzeko aitzakiaz, diktadura bere eta bere kriminal guzien zigorgabetasuna bermatu zen, batez ere.

Horrela sakondu zen elite frankista eta besteen arteko konplizitate sarea. Erreformistek gorde zuten inizatiba politikoa eta, 1980-81an, galtzeko arriskua ikusi zutenean, gogor eta bizkor erreakzionatu zuten auto-kolpe jardueraz, jada erabat mugatuta zegoen prozesuari muga berriak ezarritz. Agendaren egokipen berria inposatu zuten, batetik, krisiaren kosteak herritar xume eta langileengan itzultzeko (birmoldaketa), bestetik, atzerapenik gabe mihiztaketa prozesua burutzeko (NATO...) eta, finean, Euskal Herriaren erresistentzia edonola (bitarteko guziak baliatuz) indargabetzeko.

Agenda horren funtsa ez zen frankismo gordinera itzultzea, hala sinestarazi nahi badigute ere. Prozesuaren mugak ezarri nahi izan zituzten, une hartan zabaldu zen deskontrol irudia gaingituz, eta ekimenaren bilakaera baliatu zuten erregearen irudi mesianikoa zabaltzeko. Finean, demokratizazio prozesua kontrolpean mantentzeko fase berria ireki zuten horrela nork eta frankisten zilegitasun arazoak gaingitzeko aukera zuen PSOEk gidatuta.

Izan ere, PSOE izan zen erreforma burutzeko erronkari aurre egin ziona, elite frankistaren eta nazioarteko aitabitxien txaloen artean. Erreformaren sakontzea PSOEri egokitu zitzaion. Inizatiba erreleboa izan zen. Frankistek erreformistei eman zieten erreleboa. Errelebo traumatiko xamarra izan zen eragile batzuen dako, oso goxoa beste batzuen dako (botere faktikoak, armada, guardia zibila, bankuak, patronala, eliza...) Finean, faktikoen araberako aldaketa izan zen. Oroitu behar da PSOEren leloa aldaketa izan zela, hain zuzen ere, galarazi nahi zutena.

Aukera autoeraldatzaila galdu zen. Ez zen prozesu konstituziogilerik egin. Are gutiago deseratze prozesurik. Hori dena alde batera utzi zen, beste bide bat inposatuz. Honenbestez, erreforma goitik behera ezarritako prozesua izan zen, zeinean, eliteen arteko itunek behetik zetozen indarrak mende hartu zituztelarik.

Prozesua nahiko opakoa izan zen, jendeari informazio erreala eta parte hartzeko aukerak eskaini gabe. Prozesu autoritarioa izan zen, beraz, autoritarismo batetik beste batera pasatzeko erabili zena mahai azpiko lana eta etsipen-erosketen bidez, kontrola ez galtzeko obsesioak bultzatuta.

Finean, aurretik margotutako marra gorriak izan ziren demokratizazioaren mugak.

Erreforma gailendu zen hausturaren aukeraren gainetik, batetik, hasieratik inizatiba izan zutelako frankistek eta beren aliatuek, eta, bestetik, oposizio historikoak eta eragile berri batzuek beren burua saldu zutelako erregimen berriaren kudeaketan lekua aurkitzearen truke. Goitik beherako prozesua izan zen, gainezkapena galarazte erdietsi zuena, kontrolpeko egokipena bermatuz.





5. Behetik gorako demokratizazio saio nagusia euskal intsubordinazioa izan zen, erreformaren kontraesanak agerian utzi eta herritarren babes zabala lortu zuen erresistentzia eraikitzailea. Erreformaren harrera eta erreformaren aurreko jarrerak bide-banaketa historikoa ekarri zuten estatua eta Euskal Herriaren artean.

Oso goiz hasi ziren Euskal Herrian erreformarekiko kritikak. Mesfidantza handia zegoen erregimenetik etor zitekeenaz eta, estatuan ez bezala, diktadura eta diktaduraren kontrako lehian gordintasunak lerrotze eta lubaki argi eta sakonagoak eraiki zituen. Giro hartan, frankistek ez zuten sinesgarritasunik inolako aldaketarik lideratzeko.

Jada aipatu dugunez, izugarrizko konfrontazioa irekita zegoen Euskal Herrian, baita maila armatuan ere, eta horrek polarizazio nabarmena ekarri zuen. Gatazka gordina zen ezaugarri nagusia, gatazka armatua, gatazka politikoa, gatazka sozialak, eta polarizazio hartan ez zen erdibideko egitasmoetarako leku askorik gelditzen. Jendartearen bazegoen erregimenaren mugak gainditzeko grina bizia eta estatuak, honetaz jabetuta, beste inon baino bortitza jarduten zuen.

Indar oroz erantzun zuten eragile berriek frankisten jaka aldaketa saioei eta presio izugarria egin zuten aldaketa sakon baten alde, erreformaren aldeko indar bilketa zailduz. Mobilizazio garaiak izan ziren, estatuan ez bezala, Euskal Herrian oposizio historikoak (eta bereziki PCEk eta PSOEk) ez zutelako herri mugimendua kontrolatzen. Eta estatuak indarraren erabilpena, ahuldu beharrean, areagotu zuen, errepresioak gero eta garrantzia gehiago hartu zuelarik.

Estatuan bezala, argipen eta dekantazioa gertatu zen frankismoaren kontrako indarren esparruan, baina bertan oso indartsua zen haustura posizioa. Frankismoaren azken urteetan erroto zen euskal zentzu komun antifrankista aldatuz joan zen eta maila handi batean demokratizazio sakonaren aldeko zentzu komuna bilakatu zen, aldaketa aukerak oso handiak zirelarik.

Jende askorendako zerumuga ez zen diktaduraren bukaeraz bukatzen, aldaketa sozial eta politiko handiak eskatzen ziren, euskal lurraldeen arteko batasuna, autodeterminazio eskubidea, errepresioaren bukaera, amnistia osoa, euskararen ofizialtasuna, kriminal frankisten zigorra eta, era berezian, beste eredu sozio-ekonomikoa. Izan ere frankismoa eta zapalkuntza kapitalista erabat lotuta agertzen ziren.

Garai hartan mahai gainean jarri zen erreformari herri gisako erantzuna ematea, alternatiba bideragarriaren bidez. Taldetxo batzuek proposamen bideraezinak egiten bazituzten ere, bazegoen alternatiba errealistak bultzatzeko asmo zabala. Haustura terminoetan, jakina, diktadurarekiko etena bermatzeko, eta aldaketa sakonak lortzeko, baina egitasmo egingarrien bidez. Ezkerreko independentismoak bere eskaintza egin zuen, KAS Alternatiba, hausturarako proposamen demokratiko eta indar metatzailea.

Franco hil ondotiko lehen urteetan saio ezberdinak egin ziren akordioetara iristeko. Txiberta izan zen erreformari euskal alternatiba komuna oposatzeko saio nagusia, ez bakarra baina bai nagusia. Eta Txibertak porrot egin zuen, batez ere, hainbat eragilek haustura baztertu eta ziurtzat jotzen zuten agertoki erreformistaren parte izatea erabaki zutelako. Finean, euskal estrategia nazionala alde batera utzi eta espainiar estatu mailako politikagintzan aritzea lehenetsi zuten, erreforma legitimatuz.

Azpimarratu behar da garai hartako proposamenak zentzuzko eta neurtuak zirela. Egia da batzuek zer eta proletalgoaren diktadura proposatzen zutela, baina nagusitzen zen jarrera gutxiengoaren eskaera zen, haustura demokratikorako agenda partekatua. Urteekin erreformaren aldeko apustua justifikatzeko zabaldu diren gezurrak argituz, borroka armatuari bukaera emateko aukera mahai gainean jarri zen. Egon zen, beraz, gatazkaren parametroak aldatzeko parada, baina ez zen baliatu.

Hura egin zitekeen, Euskal Herrian bazegoen agenda hori mahai gainean jarri eta defendatzeko aski indarra. Ez dakigu zer gertatuko zen agenda hori adostuz gero, baina suposatu dezakegu erreformak arazo handiagoak izanen zituela eta beharbada ez zuela Euskal Herrian bere plana inposatzea lortuko.

Ez zen posible izan. EAJk eta beste eragile batzuek (besteak beste euskal matxinadan ibilitako hainbatek, ETA pm-k, EIAk...) erreformaren bidea nahiago izan zuten, aukera historikoa zapuztuz. Ondorioak izugarriak izan ziren. Lurralde batasunaren aukera urrundu zen, estatuak zatiketa bultzatu baitzuen, Hego Euskal Herria bi esparruetan banatuz, EAJ eta beste batzuen babesaz. Eta aldaketa sakonen aukera itxi zen.

Erreformaren garapenak EAE eta Nafarroako komunitate autonomoen sorreraren bidea hartu zuen, frankismoaren garaletan herrialdeen artean emandako berbatze prozesua kolokan jarritz. Estatutua izan zen etsipenaren ordaina, baina konplizitate horrek urrats berriak eskatu behar zizkion EAJri, eta laster eman zituen, borroka armatua zilegitasunik gabeko terrorismo gisa kokatuz.

Frankista eta erreformistekiko lerrokatze estrategikoa gertatu zen, beraz, haustura baztertuz, posibilismoaren izenean. Estatuaren garaipen handia izan zen hura, lehia desitxuratu eta zikindu zelako. Diktaduraren garaietatik zetorren artikulazioa (Espainia eta kapitalismoaren aldeko frankistak versus aldaketa eta EHren aldeko indar demokratizatzaileak) desagiteko bidea ireki zen, lehia berriak ezarri, eta era berezian, frankistak zurituz.

Edonola ere, aipatu etsipen eta apustu estrategiko erreformistek ez zuten matxinada itzali. Kolpe handia eman zioten, jakina, baina indarrez jarraitu zuen hausturaren aldeko borrokak.

Lerrokatze horiek matxinadaren dekantazioa bultzatu zuten. Batetik, atomizaziotik indar eta erreferentzia batasun saioetara pasa zen. Bazegoen erresistitzeko asmoa, baina ez hori bakarrik, nabarmena zen alternatibak





eraikitzeko borondatea, borrokaren garapenak espektatiba handiak sortu baitzituen. Ez dugu ahanzi behar frankismo gordinenari aurre egin ziola Euskal Herriak. Finean, horrek borrokarekiko konfiantza handia ekarri zuen.

Jende askorendako hura zapuzketa handia zen. Ez zen hori espero eta nahi zutena. Eta ez zuten etxera joan eta aldaketa sakonaren asmoak ahazteko asmorik. Estatuan ez bezala, espektatiba eta etorri zenaren arteko lubakia borrokarako indarra bilakatu zen. Honek ahalbideratu zuen euskal matxinadak erregimenaren aldaketaren gainetik bizirautea. Areago, matxinada indartu eta zabaldu zen Franco hil ondotik, gerora, dakigunez, eboluzioak beste norabidea hartu bazuen ere. Horregatik, erreformaren planak kolokan jartzen zituen gainezkapen demokratikoa gertatu zela esan dezakegu.

Jarraipena eman zen frankismoaren kontrako matxinada eta erreformaren aurkakoaren artean, besteak beste, jende askorendako, borroka demokratiko eta demokratizatzaile bera zelako, erreforma frankismoaren luzapen gisa hartzen zutelako.

Gauzak horrela, dekantazioa ere estatu mailaren aurrean gertatu zen. Estatu mailako aldaketa sakon baten aukera urrundu zen eta honek ezkerreko independentismoaren hipotesi estrategikoa indartu zuen. Indar metaketa prozesu emankorra gertatu zen orduan hainbat mailatan, siglen inflazioa garaituz. Herri Batasuna abiatuko zuen Altsasuko Mahaia berpizte horren adierazpen nagusia izan daiteke, baina beste saio asko egin ziren.

Giro horretan, Euskal Herria eta estatuaren arteko ezberdintasunak areagotzen joan ziren, batez ere erreformistak nagusitzen joan ziren heinean. Bide-banaketa bat izan zen, eta horren ondorioak oraingoz ere atzematen dira. Estatuan erreforma hegemonikoa bilakatu zen, kontrakoak bazterrean gelditu zirelarik. Euskal Herrian, berriz, eragin handia izan zuen hausturaren eskaerak, eboluzioa baldintzatu zuelarik. Hegemoniaren inguruko lehia gorpuztu zen (espainiar erreforma versus euskal haustura), baina oso desorekatua eta desitxuratua, EAJ eta beste batzuei esker euskal esparruko indarren arteko lehia ere bilakatu baitzen, besteak beste, Nafarroa alde batetik eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa bestetik egituratuz eta lehia esparru isolatuak eraiki nahian.

Estatuak lortu zuen euskal oposizioa zatikatzea, eta honekin euskal matxinada bera ahuldu zuen, EAJk indarra egin baitzuen matxinada hori integratzeko eta, tamalez, lortu egin baitzuen hainbat mailatan. EAJk, Nafarroan ez bezala, Arabak Bizkaiak eta Gipuzkoak osatutako Komunitate Autonomoan matxinada integratzeko izugarritzko bitartekoak izan zituen.

Baina, halarik ere, erreformak ez zuen Euskal Herria mende hartu. Egia da ez genuela hausturarik lortu. Egia da, tamalez, 40 urtez luzatu dela menpekotasuna, baina egia da, halaber, alternatibaren eraikuntzan urrats handiak ematen ari garela, erresistentzia fasea arrakastaz gaindituta. Nabarmena denez, estatuak izugarritzko ahaleginak garatu behar izan zituen euskal matxinadaren haustura

arriskua kontrolatzeko eta, beren erredua inposatuta ere, ez zuten inoiz erreforma nahi zuten moduan itxi.

Ez dugu Euskal Herria erreformatik at gelditu omen zen oasi gisa irudikatu nahi. Erreforma estatu osoan ezarri zen, baita gurean ere, baina hemen askoz ere gehiago kostatu zitzaien, deslegitimazioa handia izan zen, lortu zuten babesa ahula izan zen eta, bestalde, porrot egin zuten esparru haustura zaleen deuseztapenean eta honi esker erreforma ez zen inoiz itxi.

6. Beste suak itzalita, Euskal Herriaren borroka bilakatu zen erreformaren erronka nagusia. Frankistak, aliatuak eta erreformista berriak, denak bildu ziren haustura zaleen kriminalizazioan eta, bereziki, Euskal Herriaren kontra, oraingoz bizirik dagoen salbuespen egoera ezarriz. Izan ere erreforma, batez ere Euskal Herrian (baina ez soilik) oso prozesu biolentoa izan zen.

Prozesua aurrera joan ahala, erreformak haustura esparruak itzaltzera jo zuen. Mobilizazio eta lehia esparruak mugatzen joan ziren, erreformaren eraikuntza aurreratzen zen heinean eta kooptazio-etsipenak ugaltzen ziren bitartean, estatuak lortu zuen zentzu komun berria indartzea, zeinaren arabera muturrak baitziren demokraziaren mehatxuak. Erreforma erdibide orekatu eta emankor gisa aurkeztzen zen, gerla zibila, kaosa eta oro har indarkeria galarazten zituena.

Erreforma ez zen eraiki frankismoaren aurka. Hegemonia bilatzen zuen heinean, etsai-lagun artikulazioa eraiki behar zuen, baina etsaiak eta lagunak bereizi eta antolatzean, frankistak eta erreformista berriak elkarrekin zeuden. Etsai bat behar zen, erreformaren lagunak elkartzeko eta identifikazio gisa bilakatzeko eta ultrasokunak, beldurra pizteko baliatzen bazuten ere, ezin zuen paper hori bete.

Haustura zaletasuna bilakatu zuen etsai. Gainezkapen demokratikoa izan zen erreformaren benetako etsaia, isolatu eta baztertu nahi izan zutena. Finean, satanizatu zutena haustura demokratikoaren aukera izan zen, ez diktadura. Laster ulertu zuten erreformaren egitasmoaz bat egiten ez zuten guziek. Anarkistak, sozialistak, komunistak, independentistak, herri mugimenduetakoak... baita karlistak ere, denak baztertuta gelditu ziren eta estatuaren errepresioaren jo puntu bilakatu ziren, maila ezberdinetan izanik ere.

Eta bide horretatik, haustura satanizatzea, denboraren poderioz, euskal matxinadaren iraupena satanizatzea bilakatu zen. Aintzat hartu behar da Euskal Herria izan zela azken urteetako frankismoaren kontrako borrokaren esparru nagusia, eta gauza bera gertatu zela erreformaz. Arrazoi askorengatik sortzen zuen kezka euskal esperimenduak, besteak beste ez zelako erosgarria. Hausturaren aldeko indarren begiradak Euskal Herrira zuzendu ziren, batez ere beste erreferenteak ahuldu zirenean.





Honen araberakoa izan zen estatuaren eta oro har erreformisten erantzuna. Euskal Herriak izugarrizko erreferentzialtasuna zuen estatuan, eta erreformistek bazekiten, beraz, euskal ereduak suntsitu behar zela, ereduak ez zabaltzeko. Eskarmentu esparru berezia bilakatu zen Euskal Herria, eta izugarrizko ahaleginak egin zituzten Euskal Herriaren borrokaren erreferentzialtasuna itzaltzeko.

Oro har, Euskal Herria bilakatu zen erreformaren arazo eta erronka nagusia. Honenbestez, erreformak bere aurpegirik itsusiena erakutsi zuen euskal matxinada indargabetzeko. Talka izugarria izan zen eta faktura erraldoia euskal haustura zaleek ordaindutakoa. Euskal intsubordinazio hura bilakatu zen orduan erreformak bilatzen zuen etsaia, erreformaren etsai nagusia.

Erreformaren etsaia ez zen frankismoa izan, ez zen komunismoa izan, ez zen ultraeskuina izan. Erreformaren etsaia haustura izan zen, eta urteak joan ahala, ETaren jardura armatua bilakatu zen erregimen berriaren etsai nagusia. ETaren kontra eraiki zen Franco hil ondotiko "demokrazia", bestela esanda, gainezkapen demokratikoaren kontra, ETA etsai gisa hautaturik. Izan ere, frankismoak egin zuen moduan, terrorisмотzat jo zuten hausturaren defentsa, ETArekin lotuta egon ala ez.

Aspaldikoa zen protesta eta erresistentzia formula guziak terroristatzat jotzeko joera. Terrorismoa jada 1944ko Kode Penalean hasi zen aipatzen eta defnizioan estatuaren segurtasuna edota ordena publikoa astintzeko asmoak aipatzen ziren, esanguratsuki. Mobilizazio, protesta edota antolakuntza formula ezberdinak erakunde eta jardura armatuekin identifikatzea diktaduraren joerak izan ziren, erreformaren bidez demokraziaren joerak bilakatu zirenak. Maila honetan ere, nabarmena da jarraipena, haustura baztertu zelarik. Finean, dakigunez, estatuaren egitura errepresiboa, poliziala, inteligentzia mailako, epaileak, ez ziren inoiz garbitu. Izan ere, erregimen aldaketa neurtua izan zen, estatua bera gordez.

Estatuaren aparatuen jarraipena izan zen, finean, erreformaren indargune handienetako bat. Jendeak bazekien sare errepresibo horrek ez zuela mugarik ezagutzen, edozer egiteko prest zegoela, hots.

Francok fusilatzeen bidez esan zuen agur eta erreforma indarrak abiatu zen, polizia kaleetan, mehatxuak airean, botere hutsunerik ez zegoela adierazteko. Interes berezia izan zuten Franco hil zen une beretik kontrol poliziala irudikatzen. Haustura eta erreformaren arteko ezberdintasunen artean zeuden errepresioaren bukaera eta errepresoreen zigorra eta argi utzi nahi izan zuten lehen unetik estatuaren indar armatuak baliatuko zituztela gainezkapen aukerak ixteko.

Argi zeuden erreformisten helburuak: erreforma inposatu, haustura aukerak desegin, politikoki indargabetu, paper zehatza eman haiek idatzitako gidoian, alternatibaren sorkuntza galaraziz: erresistentzia testimonialean gordetzeko operazioa. Errepresioa, berez, apustu politiko estrategikoa zen, ez uneko tentsioak kontrolpean izateko, erreforma inposatzeko baizik.

Gauzak horrela, erreformaren ibilbidea ekartzen ahal dugu gogora eraso errepresiboaren egutegiaren arabera. Sarraskiak, atxilotetak, mobilizazioen kontrako erasoak, debekuak, kartzelatzeak, torturak, kartzela baldintzen okertzea, zerrenda

oso luzea da eta Euskal Herrian idatzi ziren unerik gogorrenetakoak: martxoaren 3a, Montejurra, 1978ko Sanferminak...

Oso biolentoa izan zen erreforma, prozesu paketsu eta eredugarri gisa aurkeztzen badute ere. Protesten kontrako indarkeria egunoroko ogia bilakatu zen eta legalaz gain, indarkeria paraleloek ere izugarrizko eragina izan zuen, Guerrilleros de Cristo Rey, AAA, BVE... Gerla zikinak beste gerlaren lagun, frankismoan bezala.

Erreformak frankismoan ezarritako salbuespen egoera instituzionalizatu zuen, itxura demokratikoa emanaz. Lege antiterrorista, mobilizazioen kontrako neurriak, kale errepresioa, tortura, presoek eskubideen urraketa, zigor penalen inflazioa, satanizazioa... Frankismoaren eraikuntza errepresioa egokitu zen, Tribunal de Orden Público Audiencia Nacionala bilakatuz eta abar, egiturak berdin jarraitu zutelako. Esanguratsuki, PSOEk deskubritu omen zuen guardia zibila, gobernura iritsita, frankismoaren guardia zibila, jakina, inoiz demokratizatu ez zena, estatuko beste aparatuen antzera.

Hau gertatu zen hainbat eragilek terrorismoaren kontrako gerlaren narratiba onartu eta artikulazio horren menpe gelditu zirelako. Kontua ez zen borroka armatua edo ezker independentistaren estrategiaz, mezuaz, egitasmoaz edo jardueraz bat egitea ala ez, kontua zen estatuak inposatu zuen artikulazioa (demokrata zintzoak versus terrorista gaiztoak) ontzat ematea eta beraz, sakoneko gakoak (haustura versus erreforma, demokratizazio zabala versus goitik mugatutako simulazioa, gainezkapena versus prozesu zikiratua) ezkutatzen laguntzea.

Finean, narratiba horren atzean estrategia politiko baten justifikazioa zegoen. Bere burua ETaren kontrako borroka gisa aurkeztuz, piztu eta zabaldutako zapuzketa beste batzuen sorbaldan kokatu nahi zuen erreformak. Euskal etsaiaren eraikuntza operazio hegemonikoa izan zen eta, tamalez, artikulazioa inposatu zuten, eragile askoren subordinazioa bermatuz. Erreformaren kontrola zutenek oso erraza zuten: aski zen edonor terrorismoaren lagun gisa kokatzea, bere jarduerak baldintzatzeko. Eztabaida politikoa mahai gainean jartzeari, erreforma kritikatzeari, euskal gatazkaz hitz egitea ETari babesa ematea zen, eta kitto! Xantaietarako bide emankorra bilakatu zen, honenbestez, euskal independentismoaren kontrako salbuespen egoera.

Nabarmena izan zen, esaterako, EAjren eboluzioa. Uxoen manifestazioa mugarrira izen zen estatuaren logikaren onarpenean, baina askoz ere urrutiago iritsi ziren, hausturaren kontrako berma gisa agertu nahian. Ertzaintzaren sorrera eta garapena testuinguru horretan kokatu behar da.

Salbuespen egoera iraunkorra izan zen erreformak Euskal Herrian aurkitu zuen erresistentziaren aurka eraiki zuen estrategia. ETA erakundearen satanizazioaren bidez, gure herriaren borroka eta oro har, haustura, herrien eskubide eta eraldaketa sozialaren eskaera guzien kriminalizazioa inposatu zuten, espazio politikoetatik uxatzeko asmoz. Azpimarratu behar da estrategia horrek aurrera egin zuela hainbat eragilek etsai terroristaren logika irentsi zutelako.





7. Erreforma klase operazioa izan zen (kapitala versus lana) zeinean espainiar estatua mendebaldeko esparru kapitalista-inperialistan uztartu baitzen subordinazio baldintzetan, noiz eta neoliberalismoaren eraso garaian.

Gaur egun ezagutzen dugun espainiar estatua inperio baten garapen zapuztua da. Ilun-nabarrik gabeko inperio baten desegite ibilbide luzearen hondarra da, finean. Errealitate historiko honi erreparatu gabe ezin da historia hurbila ulertu, prozesu horren testuinguruan ulertu behar baitira erorketaren ondorioak diren subordinazioa eta konplexuz betetako espainiar nazionalismo erasokorra bestetik.

Inperio handi eta boteretsua izan zen Espainiak, baina XIX mendearen aurretik eragile subordinatu bihurtu zen Frantzia eta, batez ere, Ingalaterraren aurrean. Lehen mailako potentzia bilakatzeko industrializazioa, merkataritza inperioen garapena eta kolonialismo modernoaren aukerak galdu zituen Espainiar Estatuak. Horiek guztiak gertatzen ziren bitartean Espainiar Estatuak kolonia gehienak galdu zituen eta barne krisi luze eta bukaezinean agortu zen.

Are makurrago, espainiar agintariek potentzien laguntza behar izan zuten barne auziei aurre egin edo, gordinki, boterean jarraitzeko. Napoleonen kontrako gerlan, esaterako, estatu borbonikoak huts egin zuen eta herritar altxatuen protagonismoaren aurrean, kanpoko armaden beharra izan zuten boterea gordetzeko. Gerla karlista eta estatu ereduaren inguruko beste lehia guzietan horixe bera gertatu zen: estatuko eliteek ez zuten nagusitasuna bermatzeko aukerarik kanpoko laguntzarik gabe. Behar honek subordinazioa areagotu zuen, espainiar estatuaren periferikotasuna errotuz.

Baldintza horietan gertatu zen iraultza burgesik gabeko liberalizazioa, hau da, kapitalismoaren garapena eta honen araberrako eraldaketa ideologiko, sozial eta politikoak, merkatu bakarra eraikitzeko obsesioa barne. Kapitalak behar zuen estatuaren kosteak sozializatzeko saioek tentsio handiak sortu zituzten, zentralizazioak sektore asko kaltetu baitzituen, euskal lurraldeak bereziki.

XX. mendean erradikalizatu ziren tentsioak. Estatu ereduaren inguruko ezinegona nazionalismoen bidez lehertu eta langile eta laborari mugimenduak indartu ziren heinean. 1936ko estatu kolpeak agerian utzi zuen espainiar elite atzerakoiek ez zutela agertoki demokratikorik nahi, baina ez da hori nabarmendu zen bakarra. Esan dugunez, Francok Alemania eta Italiaren laguntzari esker irabazi zuen, Mendebaldeko Potentzien jarduera konplizeak ahortzi gabe. Laguntza hori subordinazio terminoetan eskatu eta lortu zen, batez ere Alemaniarena. Periferikotasunaren onarpena zen, finean, laguntzaren oinarria eta espainiar eliteek irentsi zuten, Ardatzaren porrotaren ondotik munduko nagusi berriekiko subordinazioa irentsi zuten bezalaxe.

Bestela esanda, espainiar eliteek inperioaren berreskurapenaren ametsa baztertu eta paper periferikoa onartu zuten munduko ordena berrian, laguntza ekonomiko-teknologiko eta babes politiko-militarraren truke. Espainiar Estatuak bera saldu zuten haien nagusitasunaren jarraipena bermatzeko.

Honenbestez, espainiar estatua subordinazio baldintzetan uztartu zen nazioarteko sareetan, estatu periferiko gisa. Egoera horretan gertatu zen espainiar estatuaren industrializazioa frankismoan, hau da, diktadura baten menpe. Ez zegoen eredia kolokan jartzetik, goitik behera egin zen dena eta estatuak eta bere inguruko bezero sareek izugarrizko protagonismoa izan zuten prozesuan. Menpekotasunak areagotu zituen industrializazio eta urbanizazio prozesua izan zen, automozioaren sektorean gertatutakoak adierazten duenez. Mendealde mailako mihiztaketaen beste oinarria turismoa izan zen, periferikotasuna eta ahulezia estrategikoak sakontzeko beste bide bat.

Frankismoan aldaketa handiak gertatu ziren espainiar estatuan maila sozial eta ekonomikoan, mendeetako joera batzuk gainditu zirelarik. Baina uztarketarako jasotako laguntza, finean, baldintzen truke egin zen, kolonizazio ekonomikorako formula ere izan zelarik.

Gauzak horrela, espainiar eliteetan errotu zen europar zerumugaren ideia. Haiendako prozesuaren garapen naturala eraikitzen ari zen European parte hartzea zen. Areago, irteera bideragarri bakar gisa agertzen zen, autarkiaren ilusioa baztertuta.

Testuinguru horretan abiatu zen Franco hil ondotiko erreforma prozesua, noiz eta kapitalismoaren krisi sakon garaian. Noiz eta neoliberalismo gisa ezagutzen duguna bere erasoaz oldartzen zelarik.

Paradoxikoki, diktadura izanik ere, frankismoak langile eta herri borroken presioa sentitu zuen eta azken urteetan, mobilizazio eta sentsibilizazioaren ondorioz, hainbat egokipen egin ziren soldata nahiz bizi eta lan baldintzetan.

Erreformak ahalbideratu zuen lana eta kapitalaren arteko harremanen eboluzioaren norabide hori itzultzea. Esan dugunez, langileriaren subjektibazioa eta aktibazioak, herritar askoren babesaz eta elkartasunaz, erregimenaren ahuleziak baliatuz, lorpen garrantzitsuak eskuratu zituen demokratikoa ez zen esparru batean, baina honek kezka handia sortu zuen enpresari eta oro har eliteengan. Krisialdiaren testuinguruan, langileriaren konkistatxoak eta negoziazio ahalmena mugatzeko presioak ugaltu eta indartu ziren, kaosaren mehatxua baliatuz.

Erreformaren agenda sozioekonomikoak langileriaren botere ekonomikoa mugatzeko helburua izan zuen eta, oro har lortu zuen, aukera erreformista bera hausturaren gainetik gailendu zen heinean. Erreformak ahalbideratu zuen agenda neoliberalaren implementazioa lanaren indarrek aurrerapen handiak eginak zituzten esparruetan.

Erreforma fiskala ez zen inoiz egin: elite ekonomikoek frankismoaz izan zuten ituna errespetatu zen, konplizitate hori heredatu zuen 1978ko erregimenak, konplizitate horrek sortu baitzuen erregimen berria. Krisiaren narratiba gailendu zen eta Moncloako Itunetatik aurrera, krisiaren kontrako elkarlanaren logika nagusitu zen, desmobilizazioa eta atzerapenak legitimatuz.





Bake soziala erosi zuten agintariak kooptazio aukerak eta bestelako mesedeen truke, egitura sozio-ekonomikoak eta botere harremanak kolokan jarri gabe. Bestela esanda, jendarte aldaketa sakonaren aukera espektatibean zerumugatik kanpo kokatuz. Bide horretatik usteldu ziren bai UGT bai CCOO, estatuaren parte bilakatu baitzituzten diru laguntzen bidez. Langile mugimendua indargabetzeko estrategia garatu zuen erreformak eta tamalez, aurrerapen handiak lortu zituzten desmobilizazioan nahiz zapuzketaren sorreran.

Erreforma ofentsiba neoliberalaren hastapenetan gertatu zen, baina, hain zuzen ere horregatik, indartsu zetorren unean. Ziurrenik, ezinezkoa zen garai hauetan gertatzen ari zena bere osotasunean hautematea, baina orain, dimentsio historikoak pista esanguratsuak eskaintzen dizkigu eta ikuspegi historiko horri erreparatu behar diogu.

Ofentsibaren helburuak ezberdinak ziren. Batetik lanaren errentak jaistea (lortu zuten, era ikusgarrian, espainiar estatuan, 1980ko hamarkadan, batez ere), bestetik, eliteen nagusitasuna berreskuratzea eta, finean, hegemonia kultural-ideologikoa berrestea, indibidualismo kontsumistaren bidez. Langabeziaren hazkundea langileria diziplinatzeko tresna bilakatu zen, borroka gogoak mugatzeko. Krisia, beraz, erabili egin zuten, klase posizioak errotzeko.

Beraz, orduan hala ikusterik ez bazegoen ere, erreforma ofentsiba neoliberalen kokatu behar da eta ofentsiba neoliberal horren bektore gisa ulertu behar dugu.

Ofentsibaren hasieran kapitalaren kezka zegoen. Kezka errentaren eboluzioaz eta horrek maila politikoan izan zezakeen eboluzioaz. Kezka ere maila kultural ideologikoan. Ez da kasualitatea garai hartan nagusitu zen demokraziaren inguruko kezka: eliteen asmoa zen demokrazia gehiegizkoa zela irudikatzea, eta beraz, mugatu behar zela.

Neoliberalismoaren esperimentu handienetakoa Chilekoa izan zen. Hangoa ez zen soilik gobernu aldaketa behartua, agenda ekonomiko, politiko eta kultural ideologikoaren inposaketa ere izan zen, erarik krudelean, shock moduan Naomi Kleinek ederki aurkeztu zuenez. Finean, neoliberalismoa klase boterea sendotzeko estrategia/egitasmoa zen eta da.

Fenomeno berezia gertatu zen espainiar estatuan. Izan ere, agenda neoliberalaren implementazioa hasi zen “demokratizazioaren” testuinguruan eta ia ongizatearen estatuaren implementazioaren une berean. Egoera oso berezia zen, berez, konplexua, zeinean modernizazioa-demokratizazioa eta atzerapena-ofentsiba neoliberal-atzerakoa uztartzen baitziren, dena testuinguru berezian, frankismoaren agorpen garailearen paradigmapean.

Bestalde, erreformaren erreferentzia nagusietako bat Europa izan zen. Frankismotik zetorren zerumuga zen, ikusi dugunez, baina diktadorea hilik, maila guzietan nagusitu zen. Europa salbazioa zen, are gehiago krisi garaietan. Eztabaidarik gabe, prozesuaren errealitatea ezagutarazi gabe, helburu horren araberrako bidea inposatu zuten, estatuko ekonomia horren menpe jarritz.

Zentzu horretan ere, mihiztaketa operazioa izan zen erreforma: Mendebaldeko Europan erabat mihiztatzeko operazioa, aurretik zegoen uztardura kualitatiboki aldatuz. Nazioarteko uztarketa prozesua izan zen (geopolitika-geoestrategia-geoeconomia...), noiz eta neoliberalismoaren eraso une gogor batean, Europar Batasunaren eraikuntza, kapitalaren ofentsiba lana, soldata eta zerbitzu sozialen kontra, krisi sakonaren testuinguruan. Estatu Batuetako oso inportantea zen Portugalen ez bezala, prozesua kontrolpean izatea. Kezka berezia zuten NATOn Europako hegoaldeaz. Baldintza horietan uztarketa bermatu nahi zuten bai Mendebaldeko Eragile Nagusiek nahiz espainiar eliteek.

Beraz, trantsizioak balio zuen botere ekonomikoek beren nagusitasuna eta botere politikoekiko eragina bermatzeko, ziklo aldaketa baten testuinguruan. Trantsizioa kezka eragiten zuen operazioa zen, kapitala frankismoari lotuta agertzen baitzen orduko langileria eta herri sektoreen begietara. Nabarmena ziren erregimena, oligarkia eta oro har goi mailako eliteen arteko konplizitateak, eta batzuek erregimen aldaketaren beldur ziren, zilegitasuna ez ezik nagusitasun hori galtzen ahal zutelako. Interes berezia zuen, beraz, gainezkapen demokratikoa galarazteko.

Erreformaren alderdi sozio-ekonomikoa azpimarratu behar dugu, beraz, azterketa sakon eta zabala egiteko: langile borrokak lortutakoa iraultzeko operazioa izan zen, baita langileria eta oro har herri sektoreak maila guzietan (baita ahalmen ekonomikoan ere) indargabetzeko-ahultzeko prozesua. Eliteen posizioak berreskuratzeko saioa izan zen. Erreforma klase operazio ere izan zen, kapitalaren posizioak hobetu eta langileria eta herria ahultzeko estrategia bat.

8. Erreformak garaipen handia lortu zuen estatuan maila kultural-ideologikoan, trantsizio eredugarriaren mitoa sortuz. Espainiar nazionalismo frankistaren azaleko modernizazioaren bidez, eliteen kokapen-marko orokorra nagusitu zen, demokratizazioaren mugapena legitimatuz

Erreforma, esan eta errepikatu dugunez, prozesu bortitza izan zen, inposizio nabarmena, ez baitzen beste biderik erabakitzeke benetako aukerarik eman, errepresioa izugarria izan zelako eta beldurra izan zuelako oinarri, gertaren beldurra, zatiketaren beldurra, krisiaren beldurra... Herritarrek, finean, ezin izan zuten prozesuaren subjektu izan, eta inposaketak nagusitu ziren.

Baina ez zen soilik inposaketa izan. Erreformak gehiengoaren babesa eskuratu zuen, hegemonikoa bilakatuz, bultzatzaileen asmo eta ikuspegia estatuko herritar eta eragile gehienek asmo eta ikuspegia bilakatzea lortu zutelako.

Operazio hegemonikoa izan zen, hau da, zentzu komun nagusi baten garaipena bilatu eta erdietsi zuena. Helburua ez zen soilik egitarau zehatz bat aurrera eramatea, jendearen atxikimendua ere bilatzen zuten, jendeak sinets zezan horixe





zela onena, komenigarriena, beharrezkoa, nahi zutena, azkenean. Legitimazio estrategia zen, aldaketa arrazional eta zibilizatuaren irudiaz, erreformatutako estatuari zilegitasun berria eman nahi ziona.

Erreforma egitasmoaz gain narrazioa ere izan zen, errelatoa, irakurketa eta interpretazioa. Eta erreformaren narratiban trantsizioa miresgarria izan zen, gerla zibila, anabasa eta muturren arriskuak baztertu eta demokrazia miresgarri eta oparoa eraiki zuelako. Narratiba horri Trantsizioaren Kultura esan diote batzuek. Guk, oro har, Trantsizio Eredugarriaren Mitoaz hitz eginen dugu.

Mito honek, azkenean, errealtatearen irakurketa interesatu eta sinplifikatua zen heinean, trantsizioa lorpen eredugarri gisa aurkeztu zuen. Muturren eta gerla zibilaren arriskuak gaindituta, espainiar herria, erregeak zuzenduta eta politikari eta alderdi sakrifikatuei esker, diktaduratik demokraziara pasa zen, indarkeriarik gabe. Honela frankismoaren salaketa eta haustura baztertzen ziren, errepublikaren garaiko saio demokratizatzaileak eta eraso faxistak maila berean jarritz, denak gerla zibila gisa aurkeztuz.

Errelato hau, finean, goitik inposatutako eredia saltzeko formula zen, jendeak beste alternatibak aintzat har ez zitzan bidea.

Trantsizio eredugarriaren mitoa, gainezkapenak galarazteko eta etsipenak justifikatzeko tresna izan da, eta horrela eraikitzen hasi zen, erreforma bera hasi zenetik. Mitoa gerora indartu eta zabaldu zen mundura, baina laster hasi zen operazioaren mitifikazioa, bestela esanda, trantsizio eredia zentzu komun bilakatzeke plana.

Operazioaren gakoa despolitizazioa izan zen, antagonismo sozial, ekonomiko eta politikoen ukapena, demokratizazioak behar omen zuen kontsentsuaren onerako.

Esanguratsuki, kontsentsua mitifikatu zen, eztabaidak eta erabakitzeke aukerak gutxietsiz. Sakonean, demokraziaren gehiegikerien beldurra zegoen: demokrazia mugatu behar zen, gehiegizkoa arriskutsua baitzen... Adosteko ahaleginen kultura txalotu zen, etsipenaren goraipamenak nagusitu ziren, trantsizioa denon sakrifizio gisa aurkeztuz.

Kontsentsuaren mitifikazioak eztabaida sakonen eza mozorrotu nahi zuen, traizioak eta salerosketak era duinean azalduz. Prozesuaren gakoa zen; inposaketa makilatzeke teknika zen.

Politikaren pobretzea ekarri zuen honek, sasi-politikaren garaipena. Herritar eta herri eragileen desmobilizazioan oinarritutako prozesua izan zen, herritarrak kaleetatik etxeko egongelara eramateke estrategia, pankartatik telebista aurrera. Delegazionismoa nagusitu eta herritar entzule-ikusleak sortzeko saio iraunkorra.

Edozein protesta, edozein eztabaida politiko, lekuz kanpo kokatu zuten, kontsentsu emankorraren kolokan jartze gisa. Esparru politikoa mugatu zen, sakoneko kritika kanpoan utziz.

Hau trantsizioaren ilusioaren inguruan egin zen lehen uneetan, baina gerora, zapuzketa zabaldu zenean, krisiak aurpegirik itsusia erakutsi zuenean, etsipen eta traizioak biluzik ageri zirenean, desengainua eta pasotismoa nagusitu ziren.

Desmobilizazioaren bi fase hauek osagarriak izan ziren, biak beharrezkoak erreformak bere nagusitasuna errotu ahal izateko. Beldurra eta itxaropenaren atxikimendutik pasibitatea eta alternatibarik gabeko etsipenaren atxikimendura pasa zen. Bidean, frankismoa eta Franco hil ondotiko lehen urteetako askapen borroken suak itzaltzen joan ziren horrela, eraldaketaren baloreen gainetik zapuzketa eta zinismoa nagusitu zirelarik.

Baina, era nagusian, pasotismoa eta desenkantua ezkeraren etsipenen ondorioa izan ziren. Herritar aurrerakoi asko zapuztuta sentitu ziren, alderdi eta liderren traizioak ezagututa. Norabide eza zabaltzen zelarik, jende askoren erantzuna politikarekiko urruntzea izan zen, irteera indibidualak bilatuz. Izan ere, ikuspegi, jarduera eta sentimen komunitarioen ahultzea ekarri zuen erreformaren inposaketak. Horien ordeztu, errekontziliazioa goraipatzen zen, aniztasuna eta gatazkak ezberdintasun politiko, sozial eta ideologiaren baxterketaren bidez ezkutatu.

Eliteen arteko itunak nagusitzen eta txalotzen ziren heinean, parte hartzea eta mobilizazioa baxtertzen ziren. Herritarrak ez ziren subjektu politikoak, ikusle edota boto emaleak baizik, besterik gabe.

Kontsentsu eta transakzioaren anti-etikak borroka demokratikoaren gaingitu eta baxtertu zuen. Oinarri ideologikoen etsipena, transfugismoa, kooptazioa, salerosketa politikoa eta mahaiaaren azpiko jokoak normalizatu ziren, ustelkeriarako bidea irekiz.

Ongi uztartzen ziren joera hauek munduan zehar zabaltzen ziren diskurtso post-modernoetan. Errelato handien agorpena, sozialismoaren krisia... Aintzat hartu behar dugu hau dena eredu sozio-ekonomiko-kultural kapitalistaren indartzearen unean gertatu zela.

Alternatiben baxtertzeta izan zen erreforma. Garai hartan eredu neoliberalaren oinarri ideologiko kulturalak nagusitu ziren, aurretik bizitako eboluzioaren ondorioz. Modernizazioaren mitoaren semea da trantsizio eredugarriarena. Biak kontsumismoaren menpeko kulturaren nagusitasunean kokatu ziren, noiz eta indibidualismoa gero eta indartsuagoa zelarik.

Frankismoak industrializazioa eta urbanizazioa, eredu sozio-ekonomikoaren egokipena, finean, erregimenaren lorpen gisa saldu zuen eta, egia esan, hainbat balore errotu zituen herritar askorengan. Balore horiek despolitizazioaz eta ordenaren defentsaz lotuta zeuden: jende askok beldurrez ikusten zuen erregimen aldaketa, gerlatik eta gosetik izandako aurrerapen bidaia arriskuan jar zezakeelarik. Finean, modernizazio hori parametro autoritarioetan barnerratu zen, ez langile edo herritarren lorpen gisa, boteretik oparitutako zerbait bezala baizik. Horrela hartuta, potera bilakatzen zen lortutakoaren berme emale nagusia.





Koordenada horietan, krisia areagotzen zelarik, eta beste arrisku guziak egunoro aipatzen zirelarik, errotutako balore eta beldurrak aktibatu ziren. Jende askoren zerumuga bakarra estatus sozio-ekonomikoa mantentzea edo hobetzea zen, eskaera politiko eraldatzaileak oztopo edo zama gisa agertzen zitzaizkielarik.

Europa izan zen, bestalde, erreformaren zerumuga. Frankismotik zetorren joera areagotuta, Europako Komunitate Ekonomikoa helmuga gisa agertzen zen, isolamendu bukatu, demokrazia bermatu eta oparotasun sozial eta ekonomikoa lortzeko bidea. Europa amu erraldoia izan zen, erreforma bera aurrera eraman eta kapitalaren posizioak hobetzeko aitzakia. Erreferente erakargarria zen eta erreformaren agintariek erabiltzen jakin zuten, zalantzarik gabe. Finean, haustura proposamenak Europarako bidetik ateratzeko arrisku gisa agertzen ziren eta honek erreforma indartu zuen, batera saltzen baitziren trantsizio eredia eta Europako sare ekonomikoetan sartzea.

Diktadurak zama ideologiko eta kultural ugari eta sendoak utzi zituen estatuko jendartean, eta erreformak, haustura baztertzean, normalizatu zituen. Trantsizioak ekarri zuen demokrazia eredia ez zen diktaduraren kontrako borrokan inspiratu, frankisten lidergoaren menpeko kontsentsuan baizik. Honek kutsu autoritarioa eman zion lehen unetik eta kultura politiko demokratiko mugatu eta ahula eragin zuen.

Erreformen nagusitu zen joko politiko elitista eta ezkutukoak bat egiten zuen diktaduraren kultura politikoaz eta erraztasun handiaz zabaldu zen. Jendeari sinestarazi zitzaion beren onerako zirela sekretismoa eta eliteen arteko itunak, eta herritar askok irentsi zuten. Honek ondorioak izan zituen balore kolektiboetan, demokrazia hainbat euskarri formalekin lotu zelarik, erabakiak hartzeko gaitasuna ahaztuta. Ez zen ikasketa demokratiko komunik eman erreforman, demokrazia husteko formulek izan baitzuten lehentasuna hasieratik.

Mobilizazio eta aktibazio sozialaren eredian herritar eta militanteek dute boterea, eliteen arteko akordioen eredian botere hori hainbat lagunengan biltzen da, zentralizazioaren bidez: trantsizioa ezker eta oro har indar demokratikoen botere zentralizazioa izan zen, zeinaren arabera protestaren kapitala gutxi batzuen eskuetan gelditu baitzen, eta kapital hori beren posizioak hobetzeko baliatu zuten.

Azpimarratu beharra dago, bestalde, erreformak diktaduraren oinarria zen espainiar nazionalismo baztertzaille, autoritario eta atzerakoiaren nagusitasuna jarraitu eta normalizatu egin zuela. Nazionalismo honek nazio bakarria aitortzen zuen, estatuaren nazio aniztasuna ukatuz eta ezaugarri kultural eta bestelakoak mesprexatuz.

Autonomien estatu eredia ikuspegi horretatik eraiki zen, nazio aniztasuna indargabetzeko tresna gisa. Deszentralizazio mugatuak estaturik gabeko herrien askapen egitasmoak indargabetzeko asmoa zuen eta, beraz, argi gelditu zen lehen unetik ez zutela autodeterminazio eskubidea onartzeko asmorik. Maila horretan ere prozesua goitik behera egin zen, soberaniaren aukera baztertuz.

Gauzak horrela, irudi berria eman nahi izan zioten espainiar nazionalismoari, kutsu esentzialista ezkutatu eta handik urte batzuetara patriotismo konstituzional gisa aurkeztuz. Baina, batez ere, trantsizio eredugarriaren mito bera bilakatu zen espainiar nazionalismo birlegitimatze operazioaren gakoa.

Trantsizioa espainiar estatuaren fundazio unea bilakatu zen. Ez zen hausturarik izan, baina haustura gisa saltzen zuten erreforma, aurretikoa ezkutatuz. Komunitatea sortzeko oinarria elkarrekin egindako trantsizioa zen, eta beraz, estatuaren barnean nahiz munduan, eredugarri gisa hartzen zen heinean, are indartsuago bilakatzen zen nazio sentimena, nazio harrotasuna. Trantsizioa espainiar nazio sentimena berritu eta indartzeko aukera izan zen, konplexu historikoak gainditzeko parada. Espainiak zer bait erakusten zion munduari, eta beraz, bazegoen zertaz harrotu!

Espainiar nazionalismoaren zuritze honek ez zuen, berriz, erro esentzialistarekiko lotura moztu, azaleko operazio propagandistikoak besterik ez baitzen. Inposaketa joera, ezberdintasunekiko mesprezua eta homogeneizazioa bermatzeko grina bizi bizirik zeuden, gaur egun ere atzematen ahal dugunez. Ez zen, beraz, espainiar nazionalismoaren demokratizaziorik gertatu.

Bloke sozial batek bere helburuak gehiengoaren helburu bilakatu zituen. Bere beldurrak sozializatu zituen, denon kezkek bilakatu. Zentzu horretan, oso adierazgarria da Espainiar estatuaren zatiketaren beldurraren sozializazioa. Finean, estatuaren zatiketa eliteen kezka izan zitekeen, baina ez herritarrena; berriz, jende askok bestela sentitzea lortu zuten. Erreformak espainiar nazionalismo intolerante eta autoritarioaren nagusitasuna berretsi zuen, beraz.

Erreformen garaletan atzeman zenez, trantsizioaren izpiritua kontentzio formula da, edozein gainezkapen demokratiko galarazteko, beldurra mahai gainean jarritz. Marko kontzeptuala erabat biziatuta agertzen da, beraz, horrela: trantsizioa = monarkia = demokrazia = garapena = ordena; haustura = kaosa = gerla zibilaren arriskua = indarkeria = pobrezia.

Atal honekin bukatzeko, esanguratsua da espainiar kultura politiko nagusian haustura hitzak berak gorde duen zentzu ezkorra, estatuaren osotasuna defendatzeko eta edozein aldaketa satanizatzeak erabiltzen delarik. Elkarbizitzaren hausturaz hitz egiten da, esaterako.

Erreforma operazio ideologiko-kultural hegemonikoa ere izan zen, espainiar nazionalismoa naturalizatu eta jendartearen gehiengoaren despolitizazio eta desmobilizazioa bultzatu zituena. Testuinguru neoliberal eta postmodernoa uztartu zen zentzu komun berria, individualismoa eta kontsumismoa nagusitu zirelarik. Demokratizazio autoritarioak demokrazia autoritarioaren baloreak errotu zituen, gainezkapen demokratikoa galaraziz.





Ondorio eta ikasgaiak

Aipatu ditugun ideiak ez dira garai hartako azterketan agortzen. Laguntzen ahal digute Franco hil ondotiko unea hobeki ulertzen, baina etekinak askoz ere emankorragoak izan daitezke. Beste eragile batzuek ez bezala, ezker abertzaleak izugarritzko esperientzia kapitala bildu du borroka urte luze eta gogorretan zehar, eta arduraz kudeatu behar dugu aipatu kapitala, ahalik eta zuku gehien isuri araziz.

Idazki honen hasieratik azpimarratu dugunez, trebakuntza suspertu eta jarduera politikoa hobetzeko ekarpena izan nahi du hausnarketa honek eta helburu horri eutsiz, onuragarri izan daitezkeen hainbat gogoeta eta ikasgai bildu nahi izan ditugu, elkarrekin egin nahi dugun ahalegina borobiltzeko.

Aurreko esparruetan bezala, puntuka antolatu ditugu, edukiak elkarlotuta dauden arren, uste baitugu formula honek eztabaida erraz dezakeela. Honela, eztabaida antolatzeke aukera ezberdinak bideratzen dira: atal guzietan garrantzia bera eman, ikasgaiei lehentasuna ematea, dena maila beran... Aukera aniztasun honek lagun dezake behar ezberdinean arabera formulak aurkitzen. Hauta ezazue zuena, beraz, zuen erara!

1. Hausturaren aldekoa zen hautu zuzena: arrazoia genuen!

Franco hil ondotiko erreforma inperialismoa, kapitala eta espainiar eliteen interesen onerako sasi demokratizazio mugatu eta autoritarioa izan zen eta beraz, hamarkada batzuk pasata, errotik errefusatu, kritikatu eta salatu behar dugu. Finean, estatu mailan egin beharreko demokratizaziorako aukera galdua izan zen.

Izan ere, Franco hil ondotikoa demokratizazio prozesu autoritario eta bortitza izan zen. Goitik behera egin zen, diktaduraz moztu gabe, kriminalak zigor gabe utziz eta antifrankismoaren ibilbide, ekarpen eta erreferentzialtasuna baztertuz. Finean, estatuko herritarrek eta herriek ezin zuten prozesua erabaki, inposatu egin zitzaion.

Gaur egun nabarmenak dira sasi demokratizazio honen ondorioak. Prozesu autoritarioak sasi demokrazia autoritarioa ekarri zuen, ofentsiba neoliberal eta nagusitzen diren desdemokratizazio joeren testuinguruan are autoritarioagoa bilakatzen ari dena. Kultura politiko demokratiko ahulak ustelkeria, alderdikeria eta politika interes ekonomikoen menpe jarri izana eragin ditu, herritarren atxikimena ahulduz eta estaturik gabeko herrietan haserrea bultzatuz.

Espainiar demokratizazio eredia errotik errefusatu behar da, beraz. Batetik, abiapuntu gisa egun batean inperio izan zenari estatu-nazioaren ezaugarria inposatu duelako, nazio aniztasuna eta herrien erabakitzeko ahalmena ukatuz. Bestetik, kapitalaren aldeko nazioarteko eragileen subordinazio terminoetan

egin baita. Hirugarrenik, eredu autoritarioa delako, zeinean dena goitik behera eta sakoneko oinarriak tabu bilakatuta egin delako. Eta, finean, demokraziaren ezaugarritze zikiratuan oinarritzen delako, aurrekaria ez delarik diktaduraren kontrako borroka edo bizi eta lan baldintzak hobetzeko borroka, diktadurarekiko jarraitasunean gainezkapena galarazteko determinazioa baizik.

Estatu mailan, indar demokratizatzaileek bi porrot bildu dituzte 40 urteetan. Lehen, 1936tik aurrera. Bigarrena, 1975tik aurrera. Bi kasuetan, beste batzuek idatzi zuten gidoia. Bi aldiz, demokratizazioaren aukera zapuztu da. Erreformak argitzen du zergatik den hain ahula lanaren posizioa kapitalaren aurrean espainiar estatuan. Ez soilik azken urteotako eraso neoliberalen efektuagatik. Arazoa aurretik hasi zen, diktaduraren ondotiko aldaketa fasean, eta geroztik areagotu da, orduan ezarritako joko arauetarako.

Aipatubikasuetan, esanguratsuki, espainiar nazionalismoa aldaketak galarazteko gakoa izan da. Esanguratsuki eliteek jakin dute espainiar nazio sentimena beren interesen alde kontentzio tresna gisa erabiliz. Demokratizazioaren zapuzketa, honenbestez, espainiar nazionalismoaren nagusitasunaz lotuta dago.

Finean, trantsizioaren mitifikazioa gaur egungo espainiar nazio sentimenaren gakoa bilakatu da, esentzialismoarekiko lotura bizi bizirik gordeaz, baina legitimazio bide nagusitzat joaz, kontsumismoa, kontsentsua eta garapenaz batera. Oinarri horien arabera eraiki da itotzen gaituen katearen inguruko zilegitasun hegemonikoa eta erregimenaren krisiaz mintzo delarik, zorrotz aztertu behar dugu noraino iristen den gako horien kolokan jartzea.

Poztekoa da, jakina, beste garaietan bakardadean izan dugun kritika diskurtso eta jarrerak estatuan zabaldu izana, baina pasatu dira espainiar estatuaren baitan etor zitekeen demokratizazioaren zain egoteko garaiak.

Franco hil ondotiko erreformaren azterketa kritikoak ikasgai argia eskaintzen digu: hori ez da bidea. Hortik ez da etorriko gure herriaren askapena.

Azpiarratu behar dugu: hausturaren bazterketa eta erreforma inposatu izana katastrofikoak izan dira Euskal Herriarentako. Aukera galdua izan zen, hamarkadak galdu dira eta herri gisa honetatik ikasi beharra dago, erreformaren aldekoen eta bereziki EAJri kontuak eskatuz. Haiek dira gaur egungo subordinazioaren erantzuleak.

Ezker abertzaleak eta oro har hausturaren aldekoek proposatzen zutena egingarria zen. Indar harremanak ez zuen halako irteerarik errazten, jakina, baina nonbait aukerarik baldin bazegoen beste zerbait egiteko Euskal Herrian zen, euskal matxinadari esker, eta aukera hori zapuztu zen bestelako interesak lehenetsi zituztelako batzuek.

Orduko egoeraren eta erreforma prozesuaren irakurketa kritikoa egin behar dugu, indar korrelazioaren interpretazio eraldatzailearen arabera, etsipena eta boluntarismoa baztertzuz. Hau garrantzitsua da, narratiba autokonplazienteak





ugaltzen eta berpizten direlako, euskal eragile batzuk eta espainiar ezkerraren etsipena ezkutatu eta justifikatzeko.

Espainiar ezkerrek, salbuespenak salbuespen, saldu eta bakarrik utzi gintuen eta ordainaren truke eta beldurrez egin zuen. Hau da errealtate historikoa eta gure herriarekin duten zorra ezin da aitzakiaz ezta gezurrez estali. Bazegoen besterik egitea, baina batzuek ez zuten nahi izan, besteak beste arriskutsua zelako. Argi gelditu zen hausturan ez zegoela negozio pertsonalik, arriskuak eta zailtasunak baizik.

Baina hau larria bada, askoz ere larriagoa da erreformistekin lerrotu izana haustura zaleen kontra aritzeko, hausturaren aldekoak zigortzeko. Izan ere, erreformaren legitimazioan paper garrantzitsua izan zuten haustura zale ohiek, baita azken uneko damutuek ere. Finean, etsipena eta kooptazioa desmobilizazio eta despolitizazio estrategia beraren bi aldeak izan ziren.

Erreformaren kritika zorrotza egiten dugularik, erreforma ahalbideratu zuten jarrerak ere ekarri nahi ditugu gogora. Argi dago, finean, demokratizazio prozesuak ezin direla goitik behera egin eta subjektu nagusia herriak izan behar duela.

Espainiar erreformak argi uzten digu zer ez den egin behar. Hori da demokrazia txar bat egiteko formula. Kontra-eredua da, honenbestez. Demokrazia onuragarri bat egiteko, demokratizazio prozesu egokia egiteko, beste bat da bidea. Ikasgaia argia da, beraz.

Argi eta ozen esan beharra dago: hausturaren aldeko apostua zen egin beharrekoa. Asmakizun historikoa izan zen hausturaren alde eta atlantismo militarista nahiz kapitalen Europa neoliberalaren kontra egin izana. Guk arrazoiak genuen. Euskal matxinada demokratikoaren sen kolektiboa zuzen zebilen, aukera onena haustura baitzen.

2. Frankismoa eta erreformaren kontrako euskal matxinada oso emankorra izan zen, demokratizazioa bultzatu zuelako, inposatutako mugak gaindituz. Gainera, erreformaren itxiera galarazi zuen eta gaur egun irekitzen diren aukeren aurrekaria izan zen.

Erreformak ez zuen Euskal Herria mende hartu. Egia da ez gurela haustura lortu. Egia da, tamalez, 40 urtez luzatu dela menpekotasuna, baina egia da, halaber, alternatibaren eraikuntzan urrats handiak ematen ari garela, erresistentzia fasea arrakastaz gaindituta, hau guztia orduan egindako lan eta borrokari zor zaielarik.

Euskal matxinada hark emaitza izugarriak ekarri zituen. Puntu berezi batean garatuko dugun ezker abertzalearen gorpuzteaz gain, subjektu askatzailearen osaketa ahalbideratu zuen, eredu nagusiaren hegemonia kolokan jarri zuen, egitasmo kontrahegemonikoa eraikiz. Honek bestelako kultura politikoa zabaltzen lagundu zuen, zeinean, estatuan ez bezala, eragin handia izan baitzuen frankismoaren eta erreformaren kontrako borrokak.

Kultura politiko hura antifrankismoaren alaba zen, eta honek beste koordenadetan jarri zuen eztabaida politikoa Euskal Herrian. Honetan ere, nabarmena da estatua eta gure jendartearen arteko bide-banaketa. Estatuan ez bezala, euskal matxinadak demokratizazio zikiratuaren mugak gainditu eta behetik gorako joerak suspertu zituen. Horrek gure herriaren ibilbidea baldintzatu du, erreformisten ofentsibak izugarriak izan badira ere. Gauzak horrela, azpimarratu behar dugu indar demokratizatzaile emankorra izan zela euskal matxinada.

Akats eta hutsuneak izan zituen euskal matxinadak, baita ezker abertzaleak ere. Edozein azterketa zorrotzek hala aitortu eta azpimarratu behar du. Baina, oro har, zuzena izan zen egindako apustu estrategikoa eta, gainera, hautu horrek, berez, demokratizazioa harago eraman zuen gurean, inposatutako mugak gaindituz.

Gaur egun gure jendartearen atzematen diren hainbat balore, oinarri eta joera euskal matxinadaren adierazpenak dira. Erresistentziaren kultura, esaterako, baina halaber pentsamendu kritikoa, demokraziaren kontzepzio zabala, herri mugimendu eta mobilizazioekiko onespena...

Halaber, hausturaren aldeko indarren lorpenen artean kokatu behar dugu Euskal Herrian lana eta kapitalaren arteko indar harremana bestelakoa izana. Paradoxikoa da, mugimendu haustura zaleak ez baitzuen haustura lortu, baina egindako ekarpena nabarmena izan da gehiengoaren lan eta bizi baldintzetan. Neoliberalismoak erresistentzia handiak aurkitu ditu gurean, besteak beste, borroka urteotan sendotutako sentsibilitatearen indarrari esker. Ederki dakite batzuek, bereziki EAJk, ezin dutela agenda neoliberalak beste leku batzuetan bezain erraz gauzatu, zentzu komun neoliberalak errotutako baloreei egin behar dielako aurre. Ideologikoki ez ezik, maila faktikoan ere, bestelakoak dira botere harremanak eta honek dena baldintzatzen du.

Boterea harreman gisa ulertuta, nabarmena da euskal matxinadak botere harremanak kolokan jarri eta eraldatu zituela, euskal jendartearengan botere metaketa garatuz. Nolabait esateko, kontraboterearen eraikuntza arrakastatsua izan zen euskal matxinada, botere erreformistarekin lehiatu zena. Mobilizazio erraldoi horiek sedimentatu ziren jendarte trinko batean. Herri mugimenduen herria da Euskal Herria eta hau ulertzeko garai hartako leherketa sozialari erreparatu behar zaio.

Euskal matxinadak sozializazio eredu aurrerakoa bultzatu zuen noiz eta neoliberalismoak komunitate sena hautsi eta indibidualismo alienatzailea inposatzen ari zelarik. Komunitatea egin zuen euskal matxinadak, herrigintza, bestela esanda, eta honek gure herriaren ibilbideari ukitu argia eman dio.

Berpizte izugarria izan zen frankismoaren kontrako matxinada, Euskal Herria, kultura, hizkuntza, joera komunitarioak eta abar krisi larritik atera eta biziraupenerako aukera berriak sortuz. Gau ilunean egun argiaren zerumuga asmatu zuen. Porrota eta zapuzketaren emozioetatik itxaropena eta borrokarako grina isuri arazi zituen. Aldaketaren espektatiba ireki zuen errepresio eta pertsekuzio garai latzetan.





Argi esan dezagun, gure herriaren norabide historikoa eraldatu zuen euskal matxinada, subjektu zatituen gainetik subjektu berriak osatuz eta beraz, bestelako etorkizunerako bidea irekiz. Haustura bat gertatu zen gure historian honi esker. Pentsa dezagun, une batez sikiera, zein izan zitekeen gure herriaren ibilbidea euskal matxinadarik gabe. Lurrikara horrek dena mugiarazi zuen, eta oraindik ere nabarmenak dira ondorioak.

Diktadura eta erreformaren aurreko euskal matxinada fenomeno endogenoa izan zen, euskal lurraldeen indar zentripetoa bultzatu eta joera zentrifugoak ahuldu zituen. Mugak hautsi zituen matxinadak, euskal eskala lehenetsiz. Hego Euskal Herrian izan zuen epizentro nagusia, baina fenomeno nazionala izan zen, Ipar Euskal Herrian ere garapen emankorra izan zen, nahiz eta historikoki hain kaltegarri gertatu diren erdigune-periferia joerak ekarri.

Dakigunez, erreformak, berriz, beste eskalak inposatu nahi izan ditu, espainiar maila, komunitate autonomoak (Nafarroa versus EAE), Europa, Kantaurikoa, Ebro Ibarra... matxinadari esker berreskuratu zen euskal eskala hausteko. Honek adierazten digu zeinen garrantzitsua izan zen euskal matxinadak esparru honetan egin zuen ekarpena.

Bestalde, frankismoaren kontrako euskal matxinadak XX. mendeko 60 urteen bukaeran mundu mailan lehertutako protesta eta mobilizazio olatuan kokatu zen. Ideologikoki, politikoki, kulturalki, nabarmena da mugimendu eta lurrikara horiekin konektatzeko ahalegina, beti ere bertako egoera lehenetsiz. Diktadura baten aurka oldartu izanak zilegitasun eta ikusgarritasuna eskaintzen zion euskal herritarron borrokari, eta honek nazioarteko konplizitateak erraztu zituen. Bazegoen, beraz, bertako borroka unibertsal bilakatzeko bide emankorra, balore, asmo eta zerumuga unibertsalekin lotzen baitzen.

Erreformak, berriz, kapitala eta indar atzerakoien kontraofentsibaz egin zuen bat. Eta euskal matxinada hura eta bere ondorioak itzaltzeko nazioarteko konplizitate handiak izan zituen. Trantsizio Eredugarriaren Mitoaren ekoizpena eta zabalpena bultzada handiak izan ziren. Helburua argia zen, erreformak ekarritako erregimena demokratikotzat jotzea. Honela, euskal matxinadaren unibertsalizazioa kolokan jartzen zen. Jada ez zen diktaduraren kontrako borroka demokratikoa, ezta zapaldutako herri baten askatasun eskaera, demokrazia baten kontrako terrorismoa baizik.

Gerora, dakigunez, bat egin zuen asmo horrek gerla hotzaren ondotiko aroan nagusitu zen terrorismoaren kontrako paradigmaz. Euskal independentismoak gero eta arazo gehiago izan zituen, denboraz, lerrokadura emankorrak lortzeko eta honek ondorio larriak ekarri zituen Euskal Herrian bertan ere. Gertatutakoak argi uzten digu, beraz, noraino iritsi zen euskal matxinadaren emaitza, baita inertiaren mugak agerian jarri ere: lerrokadura emankorrak berreskuratu eta irekitzea funtsezkoa da edozein eraldaketa prozesutan.

Bukatzeko, euskal matxinadak eragin onuragarria izan zuen eta izan du estatu mailan eta estatutik gabeko beste herriei begira, erreformaren itxiera oztopatu

zuelako, bestelako ereduaren itzaropena bizirik mantendu zuelako eta erreformak ekarritako erregimena higitu eta biluztu duelako. Ekarpene hau larrutik ordaindu dugu, baina oso emankorra izan da. Beharbada urteak pasa beharko dira honen garrantzia atzeman ahal izateko, baina ezinezkoa da 1978ko erregimenaren krisia ulertzea ia bakardadean hamarkada gogorretan egindako erresistentzia eta salaketa aintzat hartu gabe.

3. Borroka ezberdinak artikulatu eta sintetizatzeko prozesuaren fruituetako bat da ezker abertzalea, euskal matxinada demokratikoaren adierazpen bat. Beti izan behar dugu gogoan nondik gatozen.

Euskal Herria esperimentazio politiko eta sozialaren agertoki erraldoia izan zen: ideia eta jardueren mintegi handia. Prozesu korapilatsu eta gogor horri esker sortu eta gorpuztu zen ezker independentista.

Sorkuntza prozesua izan zen. Aurreko egoerarekiko haustura bat gertatu zen, ez zen XX. mendeko 30eko urteetako borroka eta eragilearen jarraipen hutsa, beste zerbait berriaren sorrera baizik. Nabarmena da sorrera hori ez zela hutsetik abiatu (ez da inoiz hala gertatzen) baina etena azpimarratu behar da, zerbait berri izan zelako, kalitatezko jauzirako oinarria bilakatu zena.

Berrikuntza garrantzitsuak eman ziren Euskal Herrian, batetik, borroka armatuaren erabilera, testuinguru eta jardura berrien arabera, baina ez soilik. Berrikuntzak posizionamendu ideologikoan (garaiko -ismo eta dogmatismo/ sektarismoen tentaldiaren aurreko gaitasuna) baita antolakuntza ereduetan ere: horizontaltasuna-bertikaltasuna harremana, herri mugimenduen protagonismoa, erakunde berritzaileak, feminismoa, ekologismoa, langile mugimendu berria, kultura borrokak, euskalduntze ekimenak, helduen euskalduntzea, ikastolak... Berrikuntza hauek borroka formula berriak sortu zituzten, borroka aro berria irekiz.

Ezker abertzalea eraikuntza-osaketa prozesuaren fruitua izan zen. Subjektu demokratizatzaile eta berdintasun egile izan zen ezker abertzalea, eragile elitisten aurrean. Politikaren defendatzailea kontsentsuaren aurrean.

Eta, era berezian, atomizazioa gainditzeko sintesi saio arrakastatsua izan zen ezker abertzalea.

Oso zaila izan zen atomizazioa gainditzea, orduko konstelazioan bateratze eta sintesi prozesuak aurrera eramateak oztopo handiak gailentzea eskatzen baitzuen. Erreformaren kontrako borrokaren arrakasta izan zen subjektu eraldatzaile sendo baten osaketa, sektarismoen gainetik, erreferente argien inguruan, gerora indar bilketa jardura garatu eta zabalduko lukeena.

Garai hartako prozesua oroitu eta baloratu behar dugu. Izan ere, batasuna ez da zerutik erortzen. Borrokaren fruitua da, baita barne tentsio eta kontraesanen kudeaketaren efektua ere. Ibilbide luzea, zaila, korapilatsu eta kontraesanez betetakoa izan zen. Gaur egungo indarraren jatorria ezagutu behar dugu, batetik,





atomizazioaren arriskuak inoiz ez ahazteko (espainiar estatuan atomizazioa errotu eta porrotaren bidelaguna izan zen) eta bestetik historikoki gure indargune handienetakoa baita sintesia eta indar bilketa gaitasuna.

Gure ibilbidea mitifikatu eta testuingurutik at irakurtzeko tentaldia baztertu beharra dago. Izan ere, aipatzeko da ezker abertzaleak agertutako irmotasuna, baina hau ez da malgutasun ezaz edo immobilismoaz lotu behar, askotan akats horietan erori bagara ere. Ezker abertzaleak jakin du bere burua eta bere jarduera egokitzen. Ezker abertzaleak beste eragileengandik eta beren proposamen eta kritiketatik ikasi du eta hau oso aberasgarria izan da. Honek gure biziraupena ahalbideratu du, finean, beste mugimendu eta eragile batzuk erori direlarik, sektarismoak bultzatuta.

Estatuan ez bezala, Euskal Herrian artikulazio eraldatzailea gertatu zen, sigla saldetatik harago, jarduera komunak garatu ziren, konplexuak, anitzak, kontraesankorrak, baina artikulatuta. Artikulazio hegemonikoa bilatu zen KAS Alternatibaren inguruan, euskal hausturarako proposamena zena, esaterako. Finean, euskal matxinadaren gakoa ezkerreko abertzaletasuna eta mugimendu sozial berrian arteko harreman korapilatsu baina emankorrean datza eta komeni da ikasgai hori gogoan izatea.

Gauzak honela, ezker abertzalearen abiapuntu tesiaren balioa berretsi behar da: Euskal Herria klase borrokarako markoa da, eta honen ondorioz, euskal askapen borroka, klase borrokaren euskal adierazpena da, independentzia prozesua eraldaketa sozialistarako bidea delarik.

Hau esanda, argi izan behar dugu inork ezin duela euskal matxinada hura patrimonializatu. Tentsioan bizi izan da beti euskal matxinada hau, ez da inoren jabetzako, ezker abertzalearekin lotu bada ere, baina ezker abertzalea baino gehiago bada. Batez ere adierazpen eta ondorio kultural-ideologikoei erreparatzen badiegu, azken hamarkadetako Euskal Herria ezin da ulertu matxinada honi erreparatu gabe.

Matxinada nolabaiteko konstelazioa izan zen. Nabarmena da ETArek eragina matxinadan. Adierazpen nagusia izan zen maila batean, matxinadaren alde irentsi ezina, baina akats handia litzateke matxinadaren konplexutasun eta aniztasuna aintzat ez hartzea eta irakurketa sinplista egitea. Euskal matxinadaren adierazpena eta, halaber, motorretako bat izan zen ezker abertzalea, baina euskal matxinadaren indarra ez zen hor gelditu eta potentziala ez da hor soilik atzematen.

Frankismoa eta erreformaren aurrean gure herriak egin zuen borrokatik badugu, beraz, zer ikasi, ez iraganera edo esentzietara itzultzeko alperreko saioetan denbora galtzeko, baizik eta gaurko erronketarako baliagarriak izan daitezkeen hausnarketak garatzeko.

Euskal matxinada ez zen erresistentzia jarduera hutsa izan. Eraikuntza eta eraldaketa jarduera ere izan zen, egitura sentimen berriak eraiki, harremanak josi, ikuspegia eraldatu eta instituzio eta forma sozial berriak abiatu eta suspertu baitzituen.

Biziraupen jarduera baino gehiago izan zen, finean, biziraupen taupada-joera abiapuntu eta lehen urratsetan indar eraginkorra izan bazen ere. Hau da, hain zuzen ere, euskal matxinadaren luzapen eta emankortasunaren gakoetako bat: ez zen protesta adierazpen hutsa, zerbait berria sortzen lagundu zuen, eta balore eta ikuspegi horien sedimentaziorako aukera ireki zuen.

Nabarmena izan zen, bestalde, ideien esparruan lortutako arrakasta, euskal matxinadaren senak lideratu baitzuen frankismoaren kontrako borroka etika.

Era berezian, subjektu eraldatzailearen sorrera eta indartzea azpimarratu behar ditugu. Klase borrokaz hitz egiten dugu, baina klaseak ez dira aurretik erabat osatu, gorpuztu eta autokontzienteak diren eragileak, borrokan eta tentsio sozialetan eraikitzen diren izateak baizik. Euskal matxinada sortzen eta gorpuzten ari zen euskal langileria eta oro har euskal herriaren adierazpena izan zen, baina, une berean, matxinadak sortu zuen subjektua, subjektu gisa ahalegin horretan ezagutu eta aitortu baitzuen bere burua.

Subjektu eraldatzaile autokonsziente baten sorrera ez da lan makala. Eragile eta talde askok porrot egin dute ahalegin horretan. Gurean, prozesu arrakastatsua izan zen, arazoak arazo.

Matxinada kapital politiko gisa ikusi beharko genuke, ez atzera begira geldituz, ikasgaiak hartzeko baizik. Besteen esperientziak merkeak dira gurean aldean, baina askoz ere baliagarritasun guttiago dute gurean gauzatzeko. Geure esperientzia, berriz, garesti ordaindu dugu eta komeni da ongi baliatzea.

Edozein mugimendu eraldatzailea indargabetzeko formula da transmisioa moztea eta beraz, ikasitakoa baliatzeko aukerak mugatzea. Zenbat eta erakunde eraldatzaile ergelago, are hobe boterean daudenendako. Alta, erakunde jakintsuak, esperientzietatik ikasten dakitenek, aurrera egiteko aukera gehiago dituzte.

Oso inportantea da kapital historikoaren kudeaketan asmatzea. Ezin da ahantzi, ezin da banalizatu, eta ezin da nostalgia ankerrerako oinarri bilakatu. Hortaz, aintzat hartu behar da esentzialismoaren arriskua: garai bateko ("benetako") ezker abertzalea berriz izateko joera kezkarria.

4. Haustuaren aldeko apustu argia berretsi behar dugu, baina orain gure zerumuga ez da espainiar estatuaren demokratizazioa, espainiar estatuarekin haustea baizik. Eta gatazka lehia honetan, funtsezkoa da oroimenaren lehia.

Erreforma abiatu zenetik, Trantsizio Eredugarriaren Mitoa erabili da gainezkapen-haustura demokratikoaren kontra.

Ordena narratiba bat da trantsizio eredugarriarena. Kontserbatzailea. Esanguratsuki, 1978ko erregimenaren eta, finean, espainiar estatuaren krisiaz batera trantsizioaren mitifikazioaren areagotzea etorri da. Gailendutako oroimen kolektiboan trantsizio arrakasta erraldoia izan zen, politika eta elkarbizitzaren erreferentzia nagusia. Gauzak horrela iruditegia atzerakoia da, aldaketa sakonen aurreko euste-horma. Trantsizio ereduaren apologiaren bidez antagonismo





politikoak eta, finean, politizazio bera baztertu nahi dute, goitiko itunak goraipatuz eta edozein gainezkapen arriskutzat eta kaltegarritzat jotzen.

Horregatik, garrantzitsua da euste iruditegia eta narratiba hauek agerian uztea, batetik, gertatutakoaz bat egiten ez dutela argituz eta bestetik, atzean dagoen borondate desdemokratizatzailea nabarmenduz.

Honenbestez, erreforma frankista kritikoki pentsatzea borroka saioa da. Beraz, saio eraldatzaile gisa hartzen dugu hausnarketa komun hau. Gure abiapuntua, apustu independentistaren berriztapena da, zeinean estatua lortzeko asmoa eraldaketaz uztartzen baita. Gaur egungo egoera eta ibilbidearen irakurketa independentziaren hipotesia baieztatu du.

Gure gogoeta, beraz, deskonexio saioa ere bada, gure ikuspegia ez baita beren estatuaren une ireki batean bide bat ala bestea hartu nahi/behar duten espainiar herritarrena, euskal bidea hartzeko determinazioa duten euskal herritarrena baizik.

Bidegurutze baten aurrean omen dago espainiar estatua, baina Kataluniak eta Euskal Herriak, maila ezberdinetan bada ere, badugu gure agenda eta ez gaude jada espainiar estatuaren balizko eboluzioaren zain. Haustura demokratikoaz mintzo zen ezker abertzalea duela 40 urte, baita orain ere, baina egun euskal haustura demokratikoaz ari gara, Euskal Herriak hartu behar duen berariazko bideaz, Euskal Herriaren eratze prozesuaz, Euskal Bideaz, finean.

Aro berria ireki dugu Euskal Herrian, zeinean zerumuga ez da espainiar estatuarekiko joko arauen inguruko akordioa (aldebikotasuna) geure bidea egitea baizik (aldebakartasuna). Ez gaude inolako negoziaketaren zain, eta gure ikuspegi geopolitikoa ez da espainiar estatua mugatzen, batetik, gure herria espainiar eta frantziar estatuen menpe baitago, eta, bestetik, nabarmena baita gaur egun espainiar estatua menpekotasun eta subordinazio egoeran dagoela nazioarteko hainbat eragileekiko, direla estatu boteretsuagoak (Alemania, Estatua Batuak) direla subjektu ekonomikoak.

Gauzak honela, hausturaren formula hautu independentista da, Euskal Herriak egin behar duen euskal bidea.